

ARALAR

ILDO IDEOLOGIKOA

# AURKIBIDEA

## *Abiapuntuak*

1. ARALARren nortasuna
  - 1.1 Euskal Herria
  - 1.2 Lurraldetasuna eta herritarrak
  - 1.3 Erabaki-esparruen erabakimena: autodeterminazioa
  - 1.4 Burujabetasunaren beste erabilera batzuk: Europa eta mundua
2. Euskara
3. ARALAR, ezkerreko kolektiboa
  - 3.1. Garai berriak, ezker jarrera irekia
  - 3.2 Ezker nortasuna, lehentasuna

## *Gura dugun ezker eraldatzailea: intuizio eta ideia nagusi batzuk*

4. Geure ezkerre definitzen. Lehen hurbilpena
5. Giza duintasuna
6. Ezkerre, bizitza aukera
7. Gizarte autoeraturantz
8. Bokazio eraldatzailea
9. Jarrera eraikitzailea
10. Kontzientzia eta mentalitate aldaketa ipar
11. Gizarte zibilaren protagonismoa, gizarte mugimenduekin bat
12. Gizabanakoa eta komunitatea, txanpon bereko alde biak
13. Euskal Herria oinarri eta helburu
14. Desobedientzia zibila ardatz
15. Estatuaren lekuari buruz

## *XXI mendeko ezkerrearen agenda: etorkizuneko desafioko batzuk*

16. Globalizazio neoliberala, elkartasunaren internazionalizazioa
17. Demokrazian sakondu
18. Garapen jasangarriaren alde
19. Emakumez eta gizez
20. Enpleguaren krisia, lanaren gizartearen amaiera
21. Iparra eta Hegoa
22. Etorkizuneko euskal gizarte, gizarte kulturantza
23. Pluralismoa, indibidualismoa eta zentzu krisia
24. Duintasunez hiltzeko eskubidea

## *Amaitzeko*

25. Ezker abertzalearen espazio politiko-soziala indartu eta bateratzearen alde

# ARALAR

# Ezkerreko abertzale independentisten bilgunea

## *Abiapuntuak*

---

### **1. ARALARren nortasuna**

ARALAR ezkerreko alderdi abertzale eta independentista da. Gure jardun politikoaren helburua Euskal Herriko Errepublika Federala osatzea da; horretarako, Euskal Herria osatzen duten lurraldeetako bizilagunen atxikimendu librea bilatu eta bultzatuko du ARALARrek. Errepublika Demokratikoa izango da: demokrazia ordezkatzaileria eta parte-hartzailea uztartuko dira; Errepublikak lehentasuna emango die talde-interesei norbanakoaren interesen aurretik, ez du armadarik izango eta ez da ezein bloke militarretan lerrotatuko. Nazioarteko politikan, herriekiko elkartasuna izango du ardatz, eta Europan ere horixe bilatuko du: Europako herrien batasuna lortzea.

#### **1.1. Euskal Herria**

Euskal Herria zazpi herrialdek osatzen dute: Araba, Bizkaia, Gipuzkoa, Lapurdi, Nafarroa Beherea, Nafarroa Garaia eta Zuberoak. Horiez aparte, Trebiñoko konterria eta Villaverde de Turtziosko enklabea daude, Hegoaldean. Iparraldean, administrazioz biarnesa den Eskiula herri euskalduna dago. ARALARrek bilatuko du Trebiñoko eta Turtziosko bizilagunek, hurrenez hurren, Araban eta Bizkaian sartzeko urratsa eman dezatela, eta Eskiulako bizilagunek euren etorkizunaz erabakitze aukera izan dezatela.

Historia luzea duen herria da gurea. Aita Barandiaranek zalantzan ipintzen zuen milaka urteko historia duen herriarentzat mende gutxi batzuek duten garrantzia, baina eduki badaukate. Historia luze horren ondorioetako bat egoera garaikide konplexua da: sarritan, eztabaidagai dugu baita Euskal Herria zenbat herrialdek osatzen duten ere.

Bada, ostera, kontzeptu argirik ere: Euskal Herriak 20.864 kilometro koadro hartzen ditu. Hau dagoeneko XIX. mendearen erdialdean Bonaparte Printzeak garbi zehaztuta utzi zuen euskalkiak aztertzerakoan egin zuen mapan.

Beste bat: Euskal Herria, mendeetan zehar gaur arte ailegatu bada, euskaldunon borondateari esker izan da: geure nortasuna gorde egin dugu, eta geu izateko borondatea agerri-agerian dugu.

Euskal Herria kontzeptu historiko, geografiko eta kulturala da. Eta kontzeptu politikoa ere bai. Kontzeptu historikoan, geografikoan eta kulturean, lehenago zerrendatu ditugun zazpi herrialdeek osatzen dute. Baina Euskal Herriaren kontzeptio politikoko kide izatea —edozein mailatan: autonomia hutsetik errepublika independentera— Euskal Herri historiko, geografiko eta kultural horretan bizi diren pertsonen borondatezko erabakia da. Hiritarren atxikimendu librearen bitartez eraiki behar da Euskal Herriko Errepublika, eta esparruak nahastatu barik egin behar da: une batean gerta liteke Euskal Herriko Errepublikak ez hartzea Euskal Herriko lurralde guztiak, baina horrek ez luke esan gura izango kanpoan geratutako herrialdeak Euskal Herria ez direnik.

## **1.2 Lurraldetasuna eta herritarrak**

Horrela, bada, lurraldetasunaren kontzeptua berriro aztertu behar du ezker abertzaleak: ezin da kontzeptu zarratua izan, zeina historian edo kulturaren oinarriturik dagoen eta lurralde fisikoari bertako hiritarrei baino garrantzi handiagoa ematen dien. Euskal Herria osatzen duten zazpi herrialdeek gehieneko muga ezartzen digute: horiek dira, gauzak ondo joanez gero, etorkizuneko Euskal Herriko Errepublika osatuko dutenak. Abertzale independentistak lana da herrialde horietako hiritarren atxikimendu librea irabaztea. Beraz, oraina eta geroa erabakitzea ez dagokio lurraldeari, bertan bizi direnei baino.

Hiritarren burujabetasuna ez da bakarrik kanpoko estatuekiko harremanetarako: barruko egituraketa ere horrela zehaztu behar da. Historiari begiratu gero, jakingo dugu orain 500 urte Gaztelak Nafarroako Erresuma konkistatu zuela. Oso-osorik. Gero, 'defendatzeko' gaitza zela-eta, Garaziko merindadetik alde egitea erabaki zuen Gaztelak. Historiaren joan-etorriak direla tarteko, azkenean, Nafarroako Erresuma eta Frantziako Erresumak bat egin zuten. Ia 500 urte joan dira gertakari horien hasieratik, eta gaur egun ukazina da Nafarroa Behereak eta Nafarroa Garaiak, bietako bakoitzak bere nortasuna duena. Lehenengoa txikia da, handiagoa bigarrena. Logikoa, beraz, baxenafarrek erabakitzea zein den etorkizunerako gura duten egituraketa. Izan ere, herrialdeak oso garrantzitsuak izan dira euskal herriaren historian, eta, gaur egun, euskaldunok, oro har, herrialdearekiko identifikazio sendoa dugu: Foru Aldundiak, Hegoaldean, bizi-bizirik dauden erakundeak dira, hauteskunde-esparru bateko erakunde hutsak baino askoz gehiago dira. Euskal Herria osatzen duten herrialdeek nortasuna sendotu egin dute, eta zilegi eta logikoa da nortasun hori errespetatzea.

## **1.3 Erabaki-esparruen erabakimena: autodeterminazioa**

Euskal Herriaren egituratze politiko burujabeak autodeterminazioa du tarteko helmuga. Inoiz independente izatera ailegatzen bagara, euskal herritarren borondate librearen bitartez izango da. Horregatik, autodeterminazio eskubidea aldarrikapena eta betebeharra da. Zor diguten eskubidea.

Autodeterminazioa, eskubide den heinean, ez da behin bakarrik erabiltzekoa. Autodeterminazioa une oro izango dugun aukera da, referendum bakarra baino haratago doana. Euskal Herri burujabeak —independente izan nahiz ez izan— beti izango du bere etorkizuna libreki erabakitze eskubidea, eta euskal herritarren belaunaldi guztiek erabili ahal izango dute, gura bestetan erabili ere.

Autodeterminazio eskubidea, gainera, ezkerreko kontzeptua da: herriari dagokio erabakitzea. Arautu beharra dago, baina demokrazia parte-hartzailearen zutabeetako bat izateko arautu. Mugatzea bilatu beharrean, zuzentasunez bideratzea bilatuz arautu beharko da, eta autodeterminazio eskubidea erabiltzeko bete beharreko urratsak markatuz. Zehaztu egin beharko dira, beraz, eskubidea erabil dezagun herrialdea ordezkatzeko duten zenbat hautetsik agertu beharko duen horren alde. Arautu egin beharko da zenbat herritarren sinadura behar den hauteskunde-esparru zehatz baten, herritar horiek auzitan jartzen duten gai horren gainean herri-galdeketa egin dadin.

Beste alde batetik, ez dugu ahaztu behar autodeterminazio eskubidea ez erabiltzea ere erabaki burujabea hartzeko era dela.

Euskal Herria herrialdeka osaturiko herria izanik, ez soilik ezarpen politikoagatik, baizik eta baita historiaren ondorioz ere, autodeterminazioa, zeinaren subjektua herri osoa den, lurralde horien

barruti politiko-administratiboetan gauzatua izan litekeela baieztatzen dugu. Autodeterminazioaren subjektua Euskal Herria da baina erabakitzeke eremuak herrialdeak izan litezke.

ARALARrek independentzia autodeterminazio eskubidearen bitartez lortzeko apustua egingo du.

#### **1.4 Burujabetasunaren beste erabilera batzuk: Europa eta mundua**

Euskal Herri burujabeak autodeterminazio eskubidea erabiliz lortuko du independentzia. Burujabea izango den Euskal Herriko Errepublikak nazioartean zein leku hartu gura duen erabaki beharko du: ez da ahaztekoa Hegoaldeko euskaldunok, aukera izan genuenean, NATOri ezezkoa eman geniola.

Horrela, Europako Batasuneko kide izaten jarraitu gura dugun erabaki beharko dugu. ARALARrek Europa politikoki egituratzearen aldeko apustua egingo du, —izan ere, Europa, Euskal Herria legez, esparru historiko, geografiko eta kulturala da, baina ez du zertan politikoa ere izan. Europaren egituraketa politiko demokratikoa Europako hiritarrok gura duguna izango da— baina herritarren kontrolari muzin eta ihes egingo ez dion Europaren aldeko apustua izango da.

Ondo begiratu behar diogu gaur egungo Europako Batasunari: makroegiturak dira nagusi; hain zuzen, hiritarren edozein kontrolen menpe ez dauden egiturak. Finantza arloan bereziki ikusgarria da hori: teknikariek hobeto egingo dutelakoan, euren esku laga dira hainbat eta hainbat erakunde —Europako Banku Zentrala, esate baterako— eta teknikari horiek ez diote ezain botere hautaturi konturik ematen. Horren eta beste horrenbeste adibideren zilegitasun ezaren jakitun, herrien Europa aldarrikatzea da ARALARren borondatea.

## **2. Euskara**

“Euskara da gure territorio libre bakarra”. Joseba Sarrionandiari hartu dizkiogu atal honen sarrerarako berbak, euskaldun askok gure hizkuntzarekiko eta gure identitate kulturalarekiko dugun sentimenduzko hartu-eman sakona ondo islatzen dutelakoan. Euskararen herria dugu Euskal Herria. Unescok diosku mende hau amaitzean euskararik ez dela izango. Euskal Herririk ere ez, beraz. Iparraldean horretarako bidean doaz: erabat zokoratuta, gero eta txartoago dago; hitzun gutxiago eta zaharrago, sozietateko sektore askotan erabat arrotz. Nafarroan, bere eraso bortitzenen jomugatzat euskara aukeratu du Espainiak. Ez alferrik: eurek ere badakite euskara barik Euskal Herririk ez dagoena, eta Nafarroa behin betiko espainiaru gura dute. Mendebaldean, gauzak hobeto daude: euskara hizkuntza ofiziala da, eta euskal hitzunok egundo izan ez ditugun eskubideak eta aukerak ditugu. Hobeto daude gauzak, bai, baina batek daki hobera doazen. Espainiak argi du, hala Mendebaldean nola Nafarroan, herri honi ezin zaiola pista libre, oztopo barik utzi, ezen horrela topatuz gero hegan egingo baitugu. Hor dihardu, oztopoari oztopoa erantsiz, trabari koxka gehituz: AEK, ikastolak, hezkuntzako D ereduak, Euskaldunon Egunkaria, euskara batua, administrazioetako hizkuntz eskakizunak... Euskal Herri euskalduna bilatzen duen nork ez du jipoiaren bat jaso?

Euskaldunok —ARALARkook tarteko— geure kabuz pentsatzen ikasi behar dugu, geure agenda zehaztu eta aurrera eraman behar dugu. Ezin gaitezke erasoei erantzuten ibili beti: eraikitzeari ekin behar diogu.

Hizkuntzarekiko ere, atxikimendu librea bilatu behar dugu. Euskaldunak asko gara — islandiarren bikoitza— eta garenok nahikoa gara hizkuntz erkidegoa osatzeko. Gura izan behar, ostera. Epeak mailakatu beharko genituzke: lehenengo eta behin, hezkuntza-sistemaren bitartez, segurtatu egin behar dugu derrigorrezko hezkuntza amaitutakoan ume guztiek euskaraz ere jakingo dutena: gaztelania edo frantsesa jakingo duten legez. Zelan egin, berriz, euskaraz jakite hutsetik

euskal hiztun izatera igaro daitezten? Asmatu egin beharko dugu, dagozkigun hizkuntz eskubideak lortzeko borroka eta euskarara hiztun gehiago erakartzeko bidea uztartzen.

Euskal Herria hain da konplexua, ezen estrategia ez da bat eta bera bakarria izango. Baina bai helburua: herritar eleanitzez osaturiko Euskal Herri euskalduna.

ARALARrek pertsona eleanitzez osatutako gizarte euskalduna du helburu. Alabaina, jakitun gara helburu hori ez dela berehala lortzekoa izango, baizik eta belaunaldiak iraungo duen prozesua izango dela. Helburu hori lortzeko egungo Euskal Herriaren egoera soziolinguistikoa kontuan hartuko duen prozesua jarriko dugu abian, tokian tokiko berezitasunak eta egoera konkretuak errespetatuko direlarik. Hala ere, norbanakoen hizkuntza-eskubideak eta hizkuntza-hautua errespetatzearen aldekoak gara.

Euskara eta euskararen normalizazioa kulturaren esparrutik atera eta gizarte osora zabaldu behar dugu. Izan ere, oso ohizkoa da gaur egun euskara kultur bereizgarri moduan bakarrik ikustea eta gainerako gizarte-alorretan bigarren mailako elementu bezala hartzea, esparru sozio-ekonomikoan adibidez. Horrexegatik, ARALARrek ez ditu euskaren normalizaziorako ahaleginak kultur alorretik bideratuko, berariaz sortutako egitura alorartekoetatik baizik.

### **3. ARALAR, ezkerreko kolektiboa**

Kongresu Eratzailearekin gorputza eta bihotza eman diogu kolektibo sozio-politiko berri bati, eta kolektibo horren nortasun zeinuak zeintzuk diren definitu. Jende anitzek osatzen dugu ARALAR, tradizio eta jatorri ideologiko ezberdinekoak, eta ondorioz, diferentziak errespetatzetik eraiki beharko dugu geurea izango den sentsibilitate berezia.

Diferentziak sustatu beharreko balore bezala ikusi beharko genituzke, ez derrigorrez onartu beharreko gaitz bezala, betiere, noski, batzen gaituena ezberdintzen gaituena baino sendoagoa bada. Aspektu eta irakurketa ideologiko guztietan zeharo bat etortzea, batetik, ezinezkoa da, eta bestetik, ez da desiragarria, dinamika uniformatzaile, baztertzailerik, dogmatiko eta totalitarioetarako hazia baita.

Beraz, geureak diren adostasunak eraiki gura izan ditugu, hots, guztiok batuko gaituen ideia, balore eta praxien orubea adostu, betiere jakinik inportanteena ez dela eraikin teoriko eta ideologiko distiratsua eraikitzea, berau praktikan islatzea baizik.

Zeregin kolektibo horretan, ezker izaera ARALARren ezaugarri funtsezko gisa errekonozitzen dugu. Hori esan ostean, berau ulertzeko gutxieneko *corpus* konpartitua eraiki beharra daukagu. Ezberdintasunak ezberdintasun, ARALARren nortasun kolektiboaren zeinuak garbiago daude abertzaletasunari dagokionean, bai barrura begira (ARALAR osatzen dugunok geure izanari lotzen diogun estilo eta ikuspegi abertzale konkretua) eta bai euskal gizarteari begira (euskal gizarteak dagoeneko badauka ARALARren begiratu propioaren zertzeladarik).

Geure ezker nortasunari dagokionean inkognitak handiagoak dira, ARALAR sortzera ekarri gaituzten zirkunstantzia nagusiek, jakina den moduan, batez ere nazio ikuspegi baitute oinarrian. Baina adostu beharra dugu gutxieneko ezker ikuskera sendo eta ireki bat, eta zeregin horretan ere, ARALARrek badauka ezker abertzalearen ezker berritzeko aukera.

ARALARrek bere burua ezkerreko eta sozialista gisa definitzen du. Beraz, Sozialismoan aurkitzen dugu gure ezker izaeraren oinarritzko identifikazioa. Orain horrek zer esan nahi duen definitzea dagokigu, izaera horrek zer (gutxieneko) marko ideologiko, praxi politiko eta pentsamendutan txertatzen gaituen irudikatzea.

Kolektibo berri baten jaiotzan oinarritzko ikuspegi eta printzipioak dira lehenik eta behin finkatu beharrekoak. Hori dela eta, ARALARko andre-gizonei orokorrak diren ikuspegiak

gorpuzten hasi eta konkretuagoak diren aspektuetara doan ibilbidea egitea komeni zaigu une honetan. Ondoko lerrook ikuspegi orokorra osatzea dute helburu, ondoren, gerora etorriko diren bestelako lanen bidez, planteamendu konkretuagoak osatzen joateko, eta modu horretan, jokaleku programatikora jaitsi.

### 3.1 Garai berriak, ezker jarrera irekia

ARALARren eraketari, beraz, aspektu bat lotzen zaio nabarmen: nazio eraikuntza (abertzaletasuna) ulertzeko modu bat, ezker abertzaleko beste erakunde batzuekin bereizten gaituena. Baina abertzale izaerarekin gertatzen den legez, geure ezker izaera definitzeak ere ariketa irekia eta berritze lan sakona eskatzen du.

Izan ere, gaur bizi dugun mundu-testuinguruan eta ezker ikuspegi batetik, gauza asko berriro pentsatu eta aztertu beharra dago, ikuspegi eta praxi molde berriak sortze aldera. Sozialismoaren proiektu historikoan hainbat eta hainbat erreferentzia eta molde zaharkituta edo gaindituta geratu dira. Ezkerreko kolektibo bat osatzen ari gara ezkerrek krisi sakona bizi duen garaian, ez horrenbeste bere balore eta erreferentzia historikoei dagokienez, baizik eta proiektu estrategiko-ideologikoari dagokionez. Gainera, krisi egoera horri globalizazioaren aroak ekarri duen desorientazioa gehitu behar zaio. XXI. mendeko ezker ezin izango da XIX. mende bukaerakoa izan, eta ezta ere XX. mendeko ezkerren berdina.

Aro historiko berria bizi dugu, eta gauza berriak egin eta sortzeko jarrera irekia eskatzen du horrek. Hasteko, ziklo historiko berria ireki zaigulako gertakariak kontzientzia hartzea dagokigu, aldaketa anitzez eta sakonez josia datorrena:

- ◆ Iraultza teknologikoa (informazio eta komunikazio teknologia berriak, mikroelektronika, robotika, gerrarako teknologia berriak, bioinjinerutza, biogenetika...),
- ◆ lanaren gizartearen krisia,
- ◆ gizarte kapitalista postindustrial eta informazionalerako jauzia,
- ◆ globalizazioa (arloan ekonomikoan, sozialean, politikoan, kulturean, eta baita eguneroko bizitzan ere),
- ◆ planetako Hegoaldearen pobretze larria,
- ◆ Estatu sozialaren krisia,
- ◆ Estatu-nazioaren krisia, bai goitik (estatuez gaindiko egiturak sortu dira, sistema kapitalistak bizi duen mundu berregituraketaren ondorioz: Europar Batasuna; MERCOSUR; AEBak, Kanadak eta Mexikok osatu duten NAFTA...), eta bai behetik (nazionalismoen eta berezotasunen indartzea, eta deszentralizazioaren aldeko esijentziak),
- ◆ Bizitzaren pribatizazio eta indibidualizazio hazkorra,
- ◆ mendebaldeko gizarteek bizi duten zentzu krisia (balore eta orientazio krisia),
- ◆ munduko hainbat lekutako identitate etniko eta erlijiosoen emergentzia,
- ◆ gizon eta emakumeen arteko harremanen eraldaketa sakona,
- ◆ aurrekaririk gabeko krisi ekologiko globala,
- ◆ planetako kultur aniztasunaren galera hazkorra,
- ◆ Bizi-itxaropenaren luzatzea eta gizartea zahartzea, lehen munduan bereziki,

◆ Zientzia genetikoaren garapen ikusgarria, gizakiari bizia bera kontrolatzeko baliabideak eman diezaiokiena,

◆ ...

Zientzialari eta pentsalari askoren ustean, gizarte aurre industrialetik gizarte industrial-kapitalistarako jauziarekin konpara daitekeen aldaketa historikoa bizi dugu. Batzuek zibilizazio aldaketaz hitz egingo dute.

Testuinguru berezi honetan ezker proiektu bat osatzeak edo sozialista izateak zer esan gura duen ez dago hain garbi. Hein handi batean, XX. mendeko ezkerrearen ziurtasunek eta errezeta garbiek dagoeneko ez dute balio. Eduardo Galeanok kontatzen du norbaitek ondokoa idatzi zuela Quito hiriko horma batean: "erantzun guztiak genituenean, galderak aldatu zizkiguten". Mundua aldatu egin da eta aldatzen ari da, sekula baino erritmo biziagoan.

Sozialismo errealeko erregimenen gainbehera ezagutu dugu. Funtsean, erregimen polizial eta autoritarioak izan dira, askatasunaren, demokraziaren eta, finean, benetako sozialismoaren ukatzaileak, demokrazia barik ez baitago sozialismorik. Errezeta keynesiarrek ere — sozialdemokraziaren filosofia eta praxi politikoa gorpuztu dutenak— birformulatzeko garaian daude, hirugarren bidearen haritik, amaitu baita bigarren mundu gerratearen osteko akumulazio eta hazkuntza erredua. Horrekin batera, liberalismoaren proiektu ekonomiko eta sozialaren berrindartzea ezagutu dugu mundu mailan. XXI. mendean, beraz, sozialismo errealearen gainbeheraren eta keynesianismoaren kuestionamenduaren osteko ezker(k) d(ir)a eraiki beharrekoa(k), globalizazio kapitalista neoliberalaren proiektu ekonomiko, sozial eta kulturalari aurre egiteko, hain zuzen.

Aldaketak ardatz nagusi dituen testuingurua bizi dugu, eta egoera honi jarrera irekia eta ez dogmatikoa dagokio, definizio eta praxi berrietara zabalik agertuko den posizioa, betiere, ezkerrearen funtsezko balore, printzipio, oinarritzeko intuizio eta motibazioei diegun fideltasunetik. Ziklo historiko berri honetan ezkerrek birpentsatu egin behar ditu orain arte izan dituen pentsamendu eta ideologia oinarriak, giza emantzipazio proiektu batek testuinguru berrian behar dituen zutabe berriak finkatzeko aldera. Horregatik, ARALARko andre-gizonek 'gure ezkerrearen definizioa' emateak ez du esan gura gorpuztuz ideologiko eta interpretazio marko seguru eta mugiezina aldarrikatzen dugunik. Sekula baino gehiago, ezkerre jarrera ireki batekin identifikatu beharra dago, sortze lana baita historiaren une berezi honetan ezkerre orori dagokiona, eta ez horrenbeste, kontsigna eta errezeta ezagunei lotzea. Eta giza sormenari bideak irekita utzi behar zaizkio beti, belaunaldi berriek definizio eta begiratu propioak eraikitzerik izan dezaten, orain eta gero.

Bere xumean, aipatu une historikoan eta berrikuntza zeregin horren barruan ulertzen eta errekonozitzen du ARALARrek bere burua; hots, ezker izaera irekia, ez-dogmatikoa, eraldatzailea, ez-autoritarioa, berritzailea eta kritikoa berreraikitze zereginean, hain zuzen.

### **3.2 Ezker nortasuna, lehenetasuna**

Ezkerrearen berritze horretan, hasteko, geure burua ezkerre gisa definitzeak duen garrantzia eta lehenetasuna azpimarratu gura dugu. Ezkerre izaera ez baitugu ulertzen bigarren mailako ezaugarri gisa. ARALARrek ez du bere ezker nortasuna beste aspektu batzuk lehenesten dituen ideia eta proiektu batean ulertzen. Izaera sozialista ez da beste ezeren menpe jartzeko.

Ezker abertzaleko erreferentzia sozio-politiko nagusiak tradizionalki landutako jardun politikoan, ezker sentsibilitatearen eta sentsibilitate horrekin lotutako ekimen politikoaren ahulezia identifikatzen dugu. Horregatik, geure identitate politikoaren artikulazioan ezker izaera eta praxiareneko garrantzia azpimarratu gura dugu.

Zentzu honetan, ARALARrek, bere xumean, ezker abertzaleak historikoki gorpuztu gura izan duen proiektu nazional *ezkerre* eraikitzearen aldeko jardunean kokatzen du bere burua.

#### **4. Geure ezkerre definitzen. Lehen hurbilpena**

Gura dugun ezkerre ez da soilik sistema kapitalistaren kritika ekonomikoa. Opresio ororen kontrako pentsamendu eta praxia da, hainbat balore eta ideia hartzen dituen: berdintasuna, askatasuna, demokrazia, elkartasuna, giza eskubideak, ekologia, justizia soziala, feminismoa, antimilitarismoa... Ezkerrearen muinean, indarrean dagoen gizartearen kontrako jarrera dago, beraz aldatzeko eta hobetzeko desioa, betiere, giza emantzipazioaren norabidean. Ezkerre beste logika zibilizatorio bat aldarrikatzen du. Funtsean, opresioa, miseria, gosea, esplotazioa, injustizia, nagusikeria, umilazioa, sufrimendua, ezjakintasuna, pobrezia eta gisako gertakarien aurkako sentimendua eta asaldatze etikoa dago ezkerre ikuspegiaren honoan.

ARALARrek Sozialismoan du bere erreferentzia, herriari eta herritarroei geure bizitza gidatzeko boterea emango digun ezker demokratikoa eta eraldatzailea da eraiki gura duguna. Geure bizitzan (pertsonal zein kolektiboan) eragina duten prozesu ekonomikoa, soziala, politikoa eta kulturalak gobernatzeko aukerak indartzera zuzendutako ekimena izan gura dugu. Botere ekonomikoa, soziala, politikoa eta kulturalen demokratizazioa hazkorra gura dugu, bai Euskal Herrian, eta bai Europan eta munduan. Bestalde, zanpatuen babesaz gain, garapen jasangarria bultzatzea eta naturarekin oreka bilatzea dira gure identitatearen oinarriko osagaiak.

#### **5. Giza duintasuna**

Ezkerreko tendentzia guztien proiektu historikoan *giza emantzipazioa* izan da azken helburua. Nola ulertu beraz? Ondokoa izan daiteke modu bat: giza sufrimenduaren kontrako borroka izan da ezkerre proiektu eta tradizio ezberdinen helduleku nagusia. Giza sufrimenduaren aurka borrokatzen saiatzen den aukera da ezkerrearen (batez ere garaituen eta zapalduen sufrimendua), giza bizitzak berez dakarren eta saihestezina den sufrimendutik haratago (mina, heriotza, bakardadea, angustia...), badaudelako egon gizarte antolamendu kaskarrari egotzi beharrekoak, eta sufrimendu horiek dira ekimen politikoen bidez konpon daitezkeenak.

Termino positiboagoetan planteatuta, ezkerrearen joera historikoa ezberdinek *giza duintasunaren* defentsa dute muinean, giza potentzialitate, gaitasun eta pertsonalitatearen garapen oso eta integralaren aldeko borroka. Pertsonok gara edozein ekimen politikoren azken helburuak, ez instrumentu edo bitarteko. Pertsona eta komunitateen garapen osoak gizakiaren dimentsio guztiak garatzea esan gura du: dimentsio indibiduala, komunitarioa, ekonomikoa, soziala, kulturala, estetikoak, artistikoak, politikoa, etikoa, espiritualak...

#### **6. Ezkerre, bizitza aukera**

Ezkerre izatea, ideia multzo eta praxi politikoa konkretu batekiko atxikimendua agertzea baino zerbait gehiago da. Teoria eta estrategia politikoa ezberdinetatik haratago, atxikimendu hori norbere bizitzan praktikatzeko da, hein handi batean, ezkerre izatea. Izateko eta bizitzeko moduak dira aukera politikoa honetara ala bestera gerturatzen gaituztenak. Zentzu honetan, ARALARrek bizi aukera eta aukera politikoen arteko lokarriak aldarrikatzen ditu, eguneroko bizitza, ezkerre dagokion mundu ikuskera eta printzipio etikoa aplikatzeko eremu zabal eta aberats gisa ulertu behar baitugu.

Beraz, ezkerre, besteak beste, izateko modu bat da, *ethos* bat, bizitza estilo bat. Kolektibo politikoa gisa, politikaren eta bizitzaren arteko lotura hertsia hori aldarrikatu gura dugu. Giza

harreman hurbilen esparrua da, besteak beste, politikarako esparru pribilegiatua, hau da, portaera eta bizitza estilo jakinak aurrera eramateko esparrua. Justizia sozialaren aldeko ekimenak, nagusikeria eta boterearen gehiegizko erabileraren aurkako jarrerak, giza sufrimenduaren aurreko sentsibilitatea... guztiak dira eguneroko bizitzan ARALARko andre-gizonek gauzatu ditzakegun printzipio eta baloreak, jakinik perfekziorik ez dagoela eta mugatuak garela (zorionez), eta beraz, kontraesan eta inkohherentzia askoren artean saiatu beharko dugula geure ingurumen hurbila eraldatzen.

Ezker nortasuna eta sozialismoaren ulerkera honetatik, gura dugun gizarte eredia egiten hasteko, ez dugu etorkizuneko gizarte sozialistaren zain egon beharrik. Geure eraginpean dagoen unibertso txikian koherentziaz jokatzeko da gizarte berria eraikitzen jardutea. Beraz, ezker proiektua eta kultura solidarioa ez dira soilik etorkizunerako alternatiba, orainaldian ere, hemen eta orain, beste modu batera bizi gaitezkeelako, bestelako giza harremanak eratzen saia gaitezkeelako. Utopiak (*topos*-ik edo lekuri ez duenak) etorkizuna marraztetik aparte, orainaldian kokatzeko, besteekin erlazionatzeko, eta geure bizitza gidatzeko moldeak ere transmititzen dizkigu.

Ikuspegi honek, geure erakundea antolatzeko orduan ezker printzipioekin koherenteak izatea dakarkigu. Militanteongandik hasi behar garelako, antolakuntzak berak ere gorpuztu behar du jite ezkertiar eraldatzailea, ez-sektarioa, irekia eta ez-autoritarioa.

## **7. Gizarte auto-eraturantz**

Funtsean, autonomia proiektua da ezkerrena, autonomia pertsonal eta kolektiboa bilatzen duena. Helburua izateaz gain, bidea ere bada: pertsonon garapen osoaren bilaketan eta gizarte antolamendu justuago eta libreago baten eraketan, pertsona eta kolektiboen protagonismo eta parte hartze heldu, demokratiko eta kontzientea desio dugu. Autonomia da helburua, eta autonomia da bidea. Bidea helburua bezain inportantea da, bideetan helburuak daudelako, eta helburuetan bideak.

Modu honetan, gizarte autoeratu eta autogestionatuago baten aldeko aldarrikapenarekin egiten dugu bat: autogobernu pertsonal eta komunitarioa ardatz izango dituen gizarte eredia aldarrikatzen dugu, berau baita boterea benetan demokratizatzeke eta modu orekatuan banatzeko bidea. Autoeraketaren ideia gizarte bizitzaren eremu guztietan indartzea da defenditzen dugun gizarte eraldaketaren norabidea: ekonomian, politikan, udaletxeetan, enpresan, kulturaren, osasunean, aisialdian...

Pertsonon bizibidea kanpo baldintzek determinatzen duteneko gizarte eredia bazterten dugu: heteronomia baldintzek markatutako eredia da hori. Eta azken urteotan baldintza horiek indartu egin dira globalizazioaren ondorio gisa. Autonomia proiektua da aldarrikatzen duguna, autonomia erlatiboa beti (beste batzuekin bizitzeak dakartzan mugak direla eta), eta bizi dugun garaiak ezaugarri duen gizartearen arteko interdependentzia hazkorrean ulertzen dugun autonomia: pertsona eta komunitateen izana kanpo baldintzen determinaziotik askatu, eta pertsona eta komunitate autoeratuak eraiki. Kanpo logika arrotzek administratutako subjektua baino gehiago, bere ekinbidea administratzeko gai den pertsona eta komunitatea. Horregatik, pertsonon partaidetza sozial aktiboa aldarrikatzen dugu, gizarte bizitzako eremu guztietan: hezkuntzan, ekonomian, politikan, kulturaren, herri ekimenetan...

Autonomia da geure iparrorratza: geure historia txikiaren protagonista bihurtzea, herri eta pertsona gisa. Hortxe identifikatzen dugu iparra, demokratizazio sozial sakona (ez soilik politiko-instituzionala).

## **8. Bokazio eraldatzailea**

Badakigu jakin, ezkerren unibertsoan estilo eta praxi anitz egon izan direla eta gaur egun ere badaudela. Ezkerren espazio sozial eta politikoa eremu anitza izan da beti, bertan kokatu izan dira hamaika korrante eta ildo: komunistak, anarkistak, sozialista-marxistak, sozialista utopikoak, leninistak, maoistak, troskistak, humanistak, sozialdemokratak...

Simplifikatuz, gaurko gizarte modernoetako eszena politikoan bi dira bereiztu daitezkeen ezker molde esanguratsuak: sozialdemokraziak ordezkaten duen profil suabea, batetik; eta bestelako ezker, gizarte eraldaketa ipar duena, anitza eta kritikoa.

Lehendabizikoak botere gune inportanteak eskuratu ditu azken urteotan (berriki eskuina berriro indartu bada ere): Alemaniako Schröder ('Zentro Berria' gisa ezagutua), Ingalaterrako Blair, Frantziako Jospin eta Italiako D'Alema dira erreferentzia esanguratsuenak. Hein batean, zenbait neurri eta politika ausart hartu izana errekonozitu behar zaie. Egon badago zer ikasi gobernu horiek aplikatu dituzten politika eta bizi izan dituzten zailtasun eta desafioen gainean. Frantzian 35 orduko lan-astearen inguruan proposatutakoa da horren adibide. Tendentzia politiko horiek gobernu eskuratu izana, iritzi publikoaren zati garrantzitsu batek hartu duen joera anti-neoliberalaren espresio da askoren ustez. Baina funtsean, kapitalismoaren kudeatzaile gisa jardun dute, eta labaintze sozial-liberal moduko bat ere suma daiteke (batez ere Blair-en kasuan). Hori dela eta, azken hamarkadetan ez da erraza izan ezkerren eta eskuinaren arteko mugak bereiztea, guztiak lapiko neoliberal bereko osagai diferente gisa agertu baitira.

ARALARrek bere egiten du ezker izaera eraldatzailea, gizarte eraldaketa ipar duen ezker estilo, pentsamendu eta praxia, ardaztuko ez dena gaurko sistemaren hutsune eta zuloak estaltzeko zereginean. Norabide eraldatzailea defenditzen duen ezkerren ispiluan errekonozitzen dugu geure burua, eta praxi politikoa ere norabide horretan jartzeko bokazioa azaltzen dugu.

Ezkerrek desafio handia du, benetako indar eragilea izan gura badu euskal gizartean. Batetik, indar esanguratsua izan gura badu, ezin dio plano politiko-instituzionaleko kudeaketari uko egin, teoria eta printzipio puruen erreinu perfektuan babestearren esate baterako, plano horretan kokatzen baita gaurko gizarteko erabakigune garrantzitsu bat. Gainera, idealismo perfektuaren erreinu seguruan ez dago ezer sortzerik. Ezkerrek demostratu beharra dauka gai dela hiritarren bizi kalitatea hobetzeko, elkartasuna oinarri izango duten neurriak bideratzeko, eta gizarte kohesiorako politikak inplementatzeko. Eta politika instituzionalean jarduteak gehienetan kontradikzioetan sartzea dakar, mugen onarpenean, tentsio eta oreka gaiztoetan, errealitatea beti baita zaila eta kontraesankorra. Baina norabide horretan badago tarterik, estuagoa ala zabalagoa, gizarte aldaketaren aldeko ekimen partzialak aktibatzen.

Aldaketa partzialen alde egin daiteke, aldi berean presente izanik programa politiko globalagoa eta epe luzeagoko egitasmo eraldatzailea. Erreformak bideratzen ahalegintzeak ez du zertan ekarri 'erreforma zalekeria' edo sistemarekiko funtzionala den erreformismo biguna. Ez da gauza bera 'zerbait aldatzea ezer aldatu ez dadin' edo 'zerbait aldatzea, gizarte eraldaketaren aldeko norabide zabalagoan'. Bigarren horretako parte sentitzen gara ('erreforma ez erreformistak'), eta zeregin horretarako ikuspegi erradikalari eutsi beharra dago, bere zentzu etimologikoan: gauzen eta arazoaren sakoneko arazoari ezaugarriak erreparatu behar zaie, trataera sinple eta azalekoetatik ihes egin. Analisi horiek emango digute arazoei aurre egiteko alternatiba partzial edo/eta globalak.

Ikuspegi eboluzionistak eta plano politiko-instituzionalean jarduteak dituen arrisku eta mugez ohartzen gara. Izan ere, ezkerren garen aldetik antagonismoak sortu eta sustatu behar ditugu, gizarte ordenaren aldaketa bultzatuko dutenak, ezin baitugu ahaztu gatazka dela aldaketarako motorra. Hori dela eta, ezkerren espazio sozial, kultural eta politikoa indartu, eta kultura eta kontzientzia kritikoa hedatu gura ditugu euskal gizartean. Horregatik, eremu instituzionaleko jarduerak ezkerren ikuspegi honetan txertatu gura ditugu, onartzen ez dugun gizarte antolamenduaren kudeatzaile soil eta legitimazio-bide bilakatu gabe. Ezkerren praxi politikoa ezin

da bitartekoen gestioan geratu, helburuak kuestionatu barik, eta dominazio harremanak sostengatzeko funtzioa betetzen duten kontzentzu hegemonikoak salatu barik.

Errealitatearen hobetze gradualen aldeko ekimenean konprometitu gaitzke, idealak eta epe luzeagoko egitasmoak begi bistatik galdu barik. Aipatutako dialektika eta tentsio hori da ezkerrek etorkizunean administratu beharko duenetakoa, eta desafio horrek sormena eta irudimena eskatzen du. Aldi berean, ezker abertzaleak historian zehar erakutsi duen borrokarako grina, errebeldia, eskuzabaltasuna eta konpromiso soziala baloratzen ditugu, balore horiek gizartea positiboki eraldatzeko beharrezkoak baitira.

Finean, ezker eraldatzailearekin egiten dugu bat, ezkerren zeregina ez baita saihestezina dena humanizatzea (gaurko sistema kapitalista globalizatua), baizik eta ez-humanoa dena saihestea. Azken batean, pertsonon neurriaren eginiko elkarbizitza eredu daukagu helburu.

## **9. Jarrera eraikitzailea**

Aurreko puntuarekin oso lotuta, jarrera kolektiboari dagokienez ere estilo eta tradizio ezberdinak aurki ditzakegu ezkerrean. Funtsean, eta gehiegi sinplifikatzeko arriskua dugula kontuan izanda, bi jarrera izan dira nagusi.

Batetik, indarrean dagoen boterearen aurka, kapitalismoaren eta gizarte eredu kapitalistaren kontra eraiki den pentsamendu, jarrera eta praxi politikoa. Mutur honetan kokatzen dira ezetzaren kulturaz hazi diren ezker joerak, dialektika negatiboa ipar nagusi izan duten tendentziak, Sistemaren ukazioan eraiki dutenak euren identitatea (erresistentzia-identitateak). Ukatze Handian eta erresistentziaren etikan oinarritutako jarrera dugu berau, ezetzaren indar positiboan sinetsi duena. Bestetik, baietzaren ezker kultura dugu: kontra egite sistematikoan baino gehiago, gizartea eraikitzeko desioan oinarritu diren joerak.

Bi jarrerak dituzte alde on eta ez hain onak, ekarpen positiboak eta mugak. Bi muturren arteko tentsio dialektikoa da, hemen ere, aurkitzen duguna. Ukatze ariketa guztietan zerbait baietzatzen da, eta baietzapen guztietan zer edo zer ukatzen.

ARALARrek ez du bere burua ez mutur batean ez bestean identifikatzen, eta aldi berean bietan identifikatzen du. Protesta eta proposamena, erresistentzia eta alternatiba, ukatu eta eraiki, biak dira gure identitatearen helduleku. Posizio absolutuetatik haratago, ARALARko gizon-emakumeok jarrera biek dituzten aspektu positiboetatik elikatze borondatea azaltzen dugu, eta dialektika sortzaile horretan errekonozitzen dugu geure burua, unean uneko jarrera eta praxi politikoa erabakiz eta sortuz, testuinguruaren eta irakurketa politikoen arabera.

Gizartea eraikitzeko egitasmoek ezkerren izaera perbertitzea ekar dezakete, halakoetan posiblea denaren eremu estuan jokatzeko delako, eta indar erlazio konplikatu eta egoera pluraletan administratu behar delako ekimen politikoa. Baina aldi berean estilo eta intuizio eraikitzailean aurkitzen du ARALARrek sortzeko aukera. Jarrera eraikitzaile, ireki eta dinamikoan aurkitzen du bere identitate politikoen oinarri funtsezkoa.

Boterearen ukatze sistematikoan eskusiboki oinarritutako estiloek, gizarteko botereak bihurtzen dituzte beraien identitatearen oinarritzeko elementu. Bide horretatik, botereei onartu egiten zaie ukatu nahi zaien indarra eta eragina, ukatua dena bilakatzen baita aldaketaren aldeko aktore kolektiboa definitzeko ardatza. Identitate kolektibo guztiek 'Bestea' erabiltzen dute euren buruak definitzeko, 'gu' guztiak definitzen dira oposizioz. Baina botereak ez du zertan izan nortasun kolektibo baten ardatz bakarra, eta ezta ere inportanteena. Ezkerrek bere proiektu propioa garatzeko ahalmena agertu beharra dauka, bestela defentsa jarreretara mugatuko da, botereen ekimenei erantzutera.

Jarrera eraikitzaileak izate konprometitua eskatzen du, inguratzen gaituen gizartea begi zorrotz eta kritikoz aztertzea. Sentipen eta printzipio etiko sakonetatik abiatuz, gaurko gizarteari darion bidegabekeria salatzeke konpromisoari eustea. Salatu eta bide berriak proposatu. Proposatu eta ekin. Hori baita ezkerrek planteatu beharreko 'puntu beroetako' bat: pentsatzeaz eta salatzeaz gain, egin egin behar du. Pentsabidea eta ekinbidea uztartzeko inteligentzia, koherentzia eta barne-indarra dira ezker ikuspegi eta praxi eraldatzaile batek behar dituenak. Norabide horretan identifikatzen dugu gure konpromisoa.

## **10. Kontzientzia eta mentalitate aldaketa ipar**

Egun, ezker ikuspegi bat osatzeko orduan dagoeneko egina dagoen ibilbide historiko luzearen lezioei erreparatu behar diegu. Besteak beste, historiak erakutsi digu iraultza handian sinesteak ez duela zentzu handirik, normalean ez baita halakorik gertatu dinamika historikoan. Giza eta gizarte prozesuek (gehienetan) ez diote printzipio horri erantzuten. Sakoneko giza izaerak berak jartzen dizkio printzipio horri erresistentzia handiak. Izan ere, gizakiongan eta gizartean gertatzen diren aldaketak normalean zailak eta gradualak izaten dira, ez handiak eta bat-batekoak. Komeni da hau garbi izatea pentsamendu erdi magikoetan eta fikzio kolektiboetan ez erortzeko, ezkerri sarritan gertatu izan zaion bezala.

Luzaroan ezkerria aldaketa handiaren zain egon da. Aldaketa historiko handi baten promesa izan da ezkerreko indar sozial eta politiko asko elikatu dituen mezu mesianikoa, baina dinamika historikoak zein gizakion izaera konplexuak gezurtatu egin dute posibilitate hori. Gaurko ezker kontzientziak mesfidati agertu behar du mezu eta ikuspegi mesianikoen aurrean, gehienetan eremu ideologiko itxiak sortzen direlako, jite autoritarioa dakartelako, errealitatearen irudi faltsu eta magiko batera garamatzatelako, errealitatean eragiteko ahalmena galtzen delako, eta aniztasuna baztertzeko joera agertu izan dutelako.

Beraz, historiaren lezioei erreparatuta, gaur badakigu gizarte eraldaketaren alde gaudenok ezin garela bizi halako bat-bateko aldaketa prozesu erradikal baten zain. Posible balitz ere, gizarteko indar erlazioak beste batzuk lirakeelako-edo, galdetu beharko genioke geure buruari desiragarria ote litzatekeen halakorik. Izan ere, gizarte ordenaren aldaketa arin eta bortitzek, gainditu nahi izan den gizartearen egiturak erreproduzitzen bukatzen dute. Horrelako prozesu historikoek, gertatu direnean, botere egituren izen edo forma aldaketa besterik ez dute ekarri, azalaren kolorea aldatu, bitartean mamiak bere horretan segituz.

Benetako ezker eraldatzaile baten helburu *nagusia* ezin da izan botere politikoaren konkista. Pertsona eta komunitateen kontzientzia eta kultur eraldaketa sakona da ezker egitasmo eraldatzailearen ardatza. Aldaketok benetakoak izan daitezten (ez azalekoak), andre-gizonen mentalitate, desio, behar, biziera eta gogoen eraldaketari erreparatu behar diogu. Pentsaera, sentiera eta jokaera berriak bilatu behar ditugu. Hor datza gaurko gizarte ordenaren sakoneko aldaketarako lurraldea.

Horretarako bidea ezin da goitik beherakoa izan: gizarte zibilaren auto-antolakuntza eta herriaren ekintza kolektibo kontzientea dira benetako prozesu eraldatzaileak abiatzeko eta gauzatzeko bideak. Gizarte zibilaren protagonismo arduratsua da benetako aldaketarako bidea, eta baita bere horretan helburua ere. Autogobernu pertsonal eta komunitarioa bideratzeko beharrezkoa da beste kontzientzia egoera bat: subjektibitate indibidual eta kolektibo berria, bizitza pertsonal nahiz kolektiboaren protagonizazio arduratsurako bitarteko eta helburu dena.

## **11. Gizarte zibilaren protagonismoa, gizarte mugimenduekin bat**

Ez da sekretua: ARALAR plano politiko-instituzionalean jarduteko bokazioarekin jaio da. Baina ez da hor agortzen, inolaz ere, bere bokazio politikoa.

Esan dugun legez, etorkizuneko ezkerrek konplexu barik jardun beharko du plano politiko-instituzionalean, eta ARALARrek eremu horretan eragiteko disposizioa agertzen du, eraikuntza soziala eta gizarte aldaketa bideratzeko helduleketako bat delako berau. Baina aldi berean, gure kolektiboa herri mugimenduan txertaturik gura dugu, gizarte mugimenduen pentsamendu eta praxi eraldatzailean zuzen konprometiturik. ARALAR bi hanka horien gainean (borroka instituzionala eta herri mugimenduak) sostengatzeko borondatea agertzen dugu. Bi osagai horiek osatzen dute gure identitatearen muina, eta politikaren kontzepzio horrek gure izana.

Ez dago esan beharrik izaera bikoitz horri modu orekatuan eustea ariketa zaila dela, eta Europan bertan dugu hori demostratzen duten hainbat adibide (Alemaniako berdeek beti bizi izan duten tentsioa, esaterako). Bide politiko-instituzionalak eta gehiegizko elektoralismoak atrapa ez gaitzan, etengabe zaindu beharreko tentsioa errekonozitzen dugu bertan, zaintza aktiboari eutsiz. Abangoardia konplexua izan dute hainbat ezkerreko alderdik, egiaren jabego eksklusiboa sentituz. Baina alderdiaren kontzepzio hori iraganeko kontua da. Gaur beste kontzepzio bat barneratzearen arriskua bizi dugu: dinamika erabat elektoralistan oinarritutako alderdiaren kontzepzioa. Horrelakorik gerta ez dakigun, zaintza aktibo eta sana aldarrikatzen dugu.

Gizarte mugimenduek ordezkutzen duten kultura alternatiboarekin bat egiten dugu. Gizarte mugimenduek gaurko gizarteko foku etiko-politiko interesanteenetakoa osatzen dute, eta tradizio humanista eta libertario sakonez hornituta daude. Hainbat ekimen kolektibotan gauzatzen dira: arrazakeriaren kontrako mugimendua, feminismoa, ekologismoa, hizkuntza eta identitate gutxituen aldekoa, antimilitarismoa, intsumisioa, gay eta lesbianen mugimendua, internazionalismoa, bazterketa sozialaren kontrako mugimendua, IHESAREN aurkakoa, boluntarioen ekimenak...

Gizarte eraldaketaren ikuspegitik, gizarte mugimenduek egiten duten ekarpen garrantzitsua plano kulturean gertatzen da, kontzientzien eraldaketan. Hor datza bere interesa, gaurko egunean zaila delako praktika askatzaile esanguratsurik abiatzea, lehenago kultur eraldaketa prozesurik ireki ezean. Kultur aldaketa horiek errealitatearen gainean ikuspegi alternatiboak garatzea dakarte. Horregatik, gizarte mugimenduak mentalitate aldaketarako haziak dira. Aldi berean, herri mugimenduek lurraldea prestatzen dute ondoren proiektu politiko, sozial eta ekonomiko jakin batzuk gara daitezen. Kultura alternatibo hori garatu ezean, gizarte eraldaketaren aldeko ekimen orok gauditutako nahi duen gizartea erreproduzituko du.

Ezker klasikoak mundu ekonomikoan eta produkzio bide eta harremanen unibertsoan identifikatu du dominazio harreman inportantea eta ia bakarra. Ostera, gizarte mugimenduek bestelako dominazio moduak salatzen dituzte, eta ezker klasikoaren ikuspegi estuegia osatzera datozkigu, balore berriak integratuko dituen diskurtsoak gizarteratuz. Askapen sozial proiektu batek kontenplatu behar dituen dimentsio ezberdinen espresio dira, beraz.

Mugimendu sozial ezberdinen arteko elkarlana eta harremana defenditzen dugu, guztiak direlako kultura eta biziera alternatiboetarako funtsezko heldulekuak. Kolaborazio hori bakoitzaren errespetuan oinarritu behar da. Gauza bera alderdi politiko eta gizarte mugimenduen arteko harremanari dagokionean. Gaur egun konbergentzia mugimenduak bilatu behar ditugu gizarte eraldaketaren alde sentitzen garen guztion artean, aniztasuna eta diferentziak onartuz.

Gure ikusmolde eta mentalitateen berreraikuntza da burutu beharreko zeregin garrantzitsua, indarrean dagoen mendebaldar kulturak nahikoa kolonizatuta gaitu eta. Zentzu honetan, gizarte mugimenduek arrazionalitate tekno-ekonomiko eta instrumentalari erresistentzia aktiboa ezartzen diote, bestelako baloreak aldarrikatuz, humanistak eta eraldatzaileak. Balore alternatibo horien inguruan bildu beharra dago espazio kolektibo kritiko eta aurrerakoa, geure parte hartze eta autoeraketa ahalmenak sustatuko dituen. Gainera, gizarte eta herri mugimenduek funtsezko

funtzioa betetzen dute, elkartasuna zabaltzeaz gain egitura komunitarioen berreraikitzea ahalbidetzen baitute.

## 12. Gizabanakoa eta komunitatea, txanpon bereko alde biak

Ideologia sistema handi guztiek landu duten aspektua dugu indibidua eta kolektibitatearen arteko harremana. Modernitateak bere ideario askatzailean izan duen gai zentrala da. XX. mendeko ideologia nagusiek batean edo bestean jarri dute arreta, eta horren ondorioz, batzuek eta bestetuek oreka gaizto horretan hutsune nabarmenak izan dituzte. Filosofia liberalak eta ideia kapitalistek eskubide indibidualen erabateko nagusigoa defenditu izan dute, gizakion dimentsio sozial-komunitarioa, lokarri sozialen garrantzia eta talde pertentziak ahaztuz. Subjektu indibidual isolatuaren utopia, hain zuzen. Ostera, beste muturrean kolektibismo itogarriak izan ditugu, askatasun indibidualak eta pertsonaren duintasuna errespetatu ez dituztenak. Batetik, indibidualismo alienatzailea, eta bestetik, kolektibismo degradatzailea.

ARALARko andre-gizonok indibidualtasunean balore inportantea errekonozitzen dugu, eta beronen defentsa eta sustapenean konprometituta sentitzen gara. Gaur egun, botere ezberdinek pertsonen kontzientzien uniformizazioa, normalizazioa eta menapena bilatzen ari diren honetan, indibidualtasuna aldarrikatu beharreko balorea eta printzipio sozio-politikoak dugu. Indibiduo libertarioaren aldarrikapena da, autonomia, kontzientea, heldua, berezia. Ezkerraren esijentzia kolektiboek muga bat dute pertsonon autonomia indibidualean, eta autonomia hori dugu gure kolektiboaren sormenerako eta irudimenerako funtsezko heldulekua.

Aldi berean, proiektu indibiduala komunitatearekiko konpromisoaren barruan ulertzea da geure apustua. Bi dimentsioak kontuan hartzen dituen ezker pentsamenduaren parte sentitzen gara: eskubide indibidualak eta onura kolektiboa, indibidualtasuna eta konpromiso komunitarioa, askatasuna eta berdintasuna, aukera indibidualak eta justizia soziala... Gizartearen garapen orekatua dugu helburu, garapen pertsonala komunitate sendo eta orekatuaren markoan gerta baitaiteke soilik.

Gaur egun ere, ezker jarrera batek norbanakoaren interes eta aukerei zenbait muga ezartzea esan gura du, betiere onura kolektiboaren mesedetan, bai euskal gizartearen perspektibatik (aberastasunaren banaketa, zerga sistema aurrerakoa...) eta baita ikuspegi global batetik ere (planetako kide guztientzat garapen aukerek nor bere bizitza estilo indibiduala eta eutsi ezina kuestionatzea dakar).

Gaurko euskal gizartean bizitzaren pribatizatze joera estruktural bat suma daiteke. Azken hamarkadetako eboluzioari erreparatuz, badirudi konpromiso eta interes kolektiboa ahulduz doazela, norbanakoaren interes indibidual hutsetik haratagoko giza ekimenek indarra galtzen dihardutela. Ezker ideia, proiektu eta konpromisoak ere, ez du ematen momentu onenean daudenik. Duela 20-30 bat urteko konpromiso sozio-politiko estutik (trantsizio politiko garaia) belaunaldi berrien bizitza estilo indibidualizatuagoetarako pausoa suma daiteke. Honek, berez, ez du zertan txarra izan, eta izan dezake aspektu positiborik: sektarismo politikoen ahultzea, indibidualtasunaren indartzea eta esijentzia kolektibo itogarrien indar galtzea... Gizartea aldatuz doa eta berarekin batera baita bizitza estiloak, bizi proiektuak eta konpromiso moldeak ere.

Baina ARALARko gizon-emakumeok gure ardura azaltzen dugu, joera horrek kontzientzia sozialaren eta konpromiso kolektiboen leuntze garrantzitsu eta hazkorra ekar lezakeelako. Galdera da ez ote gauden zentzu eta praktika kolektibo askoren desegituratzearen aurrean. Despolitizazio zikloan, berba batean (batez ere gizarte problematikei dagokienean). *Res publica*-rekiko interesa galdu duen giza figura nagusituz doala dirudi.

Hala ere, kontuz ibili behar dugu iraganaren ikuspegi erromantiko eta nostalgikoa garatzearekin. Belaunaldi berriek badituzte izan, euren interesgune eta konpromiso kolektibo

propioak, ezberdinak direnak aurreko belaunaldiak alderatuz gero, eta konpromisoa ulertzeko beste modu bat azal dezaketenak. Badago belaunaldi berrietan energia eraldatzaile nabarmena.

Indibidualtasunak duen balorea onartuz eta defendituz, egungo euskal gizartean kontzientzia soziala eta proiektu kolektiborako zubiak jartzea da ARALARko gizon-emakumeon abiapuntua, espazio kolektiboak sustatuz eta eraikitzen lagunduz, espazio publikoak (ber)eraikitzearen aldeko aldarrikapenean. Euskal espazio kolektibo eta komunitario aurrerakoia eraikitzearen aldeko lanean konprometituta sentitzen gara.

### **13. Euskal Herria oinarri eta helburu**

Euskal Herriko historia luzean eta bere tradizio sozialetan identifikatzen ditugu gaurko gura dugun ezker proiektuaren hainbat balore eta printzipio. Euskal Herriak baditu erro komunitario sakonak, besteak beste bere mitologian, imaginario kolektiboan, eta 'auzo-lana' gisako instituzio tradizionaletan azaltzen direnak. Berdintasunean, demokrazian eta elkartasunean oinarritutako herri kulturaren oinordekotza jaso gura dugu, iraganari keinu eginez eta gure arbasoen ekarpenak errekonozituz. Gure aurrekoen zenbait tradizio eta mundu ikuskera gaurko gizarte modernora ekarriz eta itzuliz.

Euskal gizartearen gehiengoa soziologikoki ezkerrekoa dela kontsidera daiteke, bere sentsibilitate sozial, politiko eta kulturalari erreparatuz. Euskal espazioa, orotara, aurrerakoia da bere planteamenduetan, politika sozialekin eta gizarte elkartasunaren aldeko neurriekin sentibera agertzen da. Gure asmoa gizarte espazio aurrerakoi horrekin lokarriak eta identifikazio elementuak garatzea da, beronen sentsibilitatea eta exigentziak dagokigun neurrian (euskal herritarrek erabakitako neurrian) politikoki bideratuz, eta sentsibilitate eremu hori indartuz.

Euskal Herria identifikatzen dugu gure ekimen politiko ezker zalerako esparru natural gisa, eta politika aurrerakoietan ardaztutako Euskal Herri sozialista eta demokratikoa aldarrikatzen dugu.

### **14. Desobedientzia zibila ardatz**

Gure ezker identitatearen barruan ekintza moldeek ere badute garrantzirik, eta ez gutxi. Gizarte zibilaren eta herritarren protagonismoaren alde agertu gara, geure kontzepzio politikoaren muinetako bat hortxe dagoela esanez, eta horixe bera da -gizarte zibila eta herritarrak- ekintza politikoaren subjektu protagonista. Herritarren desobedientzia zibil aktiboa da gizarte eraldaketarako begikoen dugun borroka eta ekintza moldea.

Horrek kontzepzio politiko oso bati erantzuten dio: desobedientzia zibilean aurkitzen dugu ezkerrek berezkoa izan beharko lukeen mami etiko eta moral sakona, eta hortxe aurkitzen ditugu gaurko gizartean efikazia politiko lortzeko aukera batzuk ere. Izan ere, indar akumulaziorako bidea dugu desobedientzia zibila. Euskal gizartearen sostengua eta babesa, etortzekotan, halako bideak erabiltzetik etorriko zaizkigu. Gaurko gizarte modernoetako botere metabolismoan, sekula baino gehiago, sostengu demokratikoa eta hiritarren babesa bilakatu da (zorionez) edozein proiektu politiko gauzatzeko ezinbesteko baliabidea.

Gainera, kontzientzien eta mentalitateen aldaketa bilatzen duen ezker kontzepziorako desobedientzia zibila lanabes funtsezkoa da: kontzientzia aldaketak bideratzeko tresna ezin hobea da, gizabanakoa bera baita arriskuak onartu eta protagonista politiko bilakatzen dena, gizartean kalterik sortu barik. Kultura ez sektarioa eta horizontala sortu eta garatzeko helduleku garrantzitsua da desobedientzia zibila.

Bere horretan ere, ustez efikazia politiko nabarmenik lortzen ez duenean ere, desobedientzia zibila berez garaipen bat da, gizarte ordenaren kontrako erresistentzia ekintza arrakastatsua.

Burutzen diren disidentzia ekintza guztiak dira bere horretan garaipen politikoak, efikazia politikoaren ikuspegitik lortutako eragin eta emaitzetatik haratago. Desobedientzia ekintzek, gainera, herritarron heziketa eta hezkuntza sustatzen dute. Jakin egin behar dugu intsumisio ekintza horiek baloratzen, garaipen txiki bezala dastatzen, efikazia politikorik lortzen ez delako sentimendu nekagarri eta mingarrian itxi barik.

Hau guztia ikusita erradikaltasun sano eta koherentea ikusten diogu ekintza politiko molde honi. Erradikaltasuna ez dugu bortxa fisikoaren erabilerarekin parekatzen. Horrek ez du esan gura zapalduak biolentzia fisikoa erabiltzeko eskubiderik ez dutenik, ezta gutxiago ere, biolentzia horiek gizarte ordenak erabiltzen duen bortxari emaniko erantzunak baitira. Baina baloratu beharra dago testuinguru bakoitzean bortxa fisikoa erabiltzearen komenientzia eta legitimitate politikoa. Edozelan ere, printzipio orokor gisa, zenbat eta biolentzia fisiko gutxiago erabili helburu jakinak lortzeko, orduan eta hobeto.

## 15. Estatuaren lekuari buruz

Bigarren Mundu Gerratik aurrera Ongizate Estatu gisa ezagutzen duguna instalatuko da mundu garatuan. Espainiaren kasuan trantsizio politikoak ezarriko du estatu eredu hori.

Estatu molde honek ez ditu soilik funtzio errepresibo eta polizialak beteko (XIX. mende amaiera eta XX. mende hasierako estatu liberalaren funtzio klasiko eta ia bakarrak). Gizarte babes, hezkuntza eta kohesio soziala ere bere helburuen artean egongo dira.

Paktu fordista izango da gerratearen osteko mundu garatuaren oinarria: langileriari ongizate materiala eta babes soziala bermatuko zaio, trukean bake sozialaren bermea lortuz. Ongizate estatua ia enplegu osoko egoeratik elikatu da, gizarte segurantzaren finantzatzeko beharrezko zerga sistema eraikiz, eta garai honetan gorpuztuko dira enpleguari historikoki lotu zaizkion eskubide eta garrantzia garrantzitsuak (lanaren estatutu kolektiboa).

Gizarte eredu hau hazkuntza ekonomiko eta gizarte kohesioaren arteko oreka egoera gisa definitu dute pentsalari askok: merkatuaren logikari eta arrazionalitate ekonomikoari mugak jarri izan zaizkio, lan baldintzen hobetzea eta aberastasunaren banaketa bezalako printzipioak jarraituz. Baina, edozein kasutan, ongizate estatua dinamika ekonomiko oldarkor eta produktibista batean oinarritu izan da. 60 hamarkada izan zen, hain justu ere, produktibismoaren eta desarrollismoaren loraldia. Garapen eredu honek ez zuen integratzen eutsigarritasunaren agindurik eta ekologiarekiko inongo ardurarik.

70 hamarkadatik aurrerako politika neoliberalak gogor joko dute estatu molde honen kontra, arrazoi ekonomikoak argudiatuz (hazkuntza ekonomikorako oztopoa bilakatu izana, merkatuaren joko libreari trabak jartzen dizkiolako) eta baita ere arrazoi etiko-moralak (estatuarekiko mentalitate klientelistikoa sortzen du, inizatiba indibiduala hilko du, *aprobetxategi* multzo handia sortuko du...). Horren ondorioz, zenbaitzuen ustean publikotasunaren zibilizazioa da zalantzan jarri dena (hezkuntza publikoa, osasun publikoa, pentsio publikoak...), eta bizi dugun garai historikoan joera neoliberal horren kontrako borroka da garrantzitsuenetakoa.

Aipatutakoaz gain, ezker ikuspegitik ere ongizate estatuak kritika ugari jaso ditu. Hauek dira horietako batzuk:

- ◆ Kapitalismoaren legitimazioa eta egonkortzea ekarriko du, langile mugimendua erabat integratuko delako sisteman. (Beste askorentzat ongizate estatua langile mugimenduaren lorpen gisa kontsideratu beharra dago, ez bere asimilaziorako asmakizun modura).

- ◆ Estatuak dinamika xurgatzaile bati ekingo dio, dagozkionak baino eremu gehiago okupatuz eta gizarte inizatiba auto-antolatuari aukerak kenduz.

- ◆ Ikuspegi horretatik ez du 'gizartea egiterik' lortu, kontrakoa baino: elkartasun sare naturalak desegin ditu, beste batzuk sortzea oztopatu, estatuarekiko dependentzia areagotu... Soziabilitaterik sortzen ez du jakin.
- ◆ Burokrazia astuna eta garestia sortu da, gizarteari onurak baino gastu handiagoak dakarzkiona.
- ◆ Plano sinbolikoan, herriak eta herriarentzat gobernatzen delako irudikapen eta ilusio kolektiboa sortzen du.
- ◆ Estatuak klase hegemonikoen interesei erantzuten die. Gainera indar errepresiboak erabiltzen ditu eta biolentziaren monopolioa exijitzen du.

XIX. mendeko ezkerren gogoan beti egon izan da Estatuaren abolizioa, bai komunismoan eta bai anarkismoan. Egun, ostera, zirkunstantzia sozial eta historikoak oso bestelakoak dira. Gaur munduan horrenbeste indar duen neoliberalismoa estatuaren kontra dago. Ikuspegi neoliberal horretatik, estatuak etekinaren akumulaziorako beharrezko baldintzak ziurtatu beharko lituzke, eta baita, jakina, funtzio errepresibo-polizialak bete ere (segurtasuna eta gastu militarra). Kito. Hortik aurrera gastu publikoa mugatu beharra dago, horrek osasunari, hezkuntzari, gizarte segurantzari eta abarri kalte egiten badio ere.

Filosofia neo- edo ultra-liberal horri jarraiki, hiritarrak dira bizitzaren gidaritzan trebatu behar direnak. Diskurtso berria agertu zaigu eskuindarren ahotan: aktiboki arduratsuak diren hiritarrak sortu behar direla aldarrikatzen dute, bizitzaren auto-erregulaziorako ahalmenak eskuratzu eta besteekiko (estatu barne) dependentziak leunduz. Neoliberalismoak gura duen gizarte zibil ereduaz ari gara, *american way of life* oinarrian duena (bizitza estilo amerikarra), eta *self-made man* gizaki eredu ipar (bere 'burua egiten edo eraikitzen' duen gizona, Rockefeller-en mitoa lagun).

Esandakoak esanda, ez da batere erraza ezkerretik posizio koherente bat hartzea estatuak izan beharreko lekuaren inguruan. Zaila da 'Estatu gehiago' edo 'Estatu gutxiago' gisako planteamendu sinpleetan ez sartzea. Badirudi, oreka dinamikoak eta arloan arloko azterketak garrantzitsuak izan daitezkeela gai honetan. Printzipioz ez gara ezker estatalistarekin identifikatzen. ARALARko gizon-emakumeok mesfidati begiratzen diogu estatu eredu indartsu bati, beldur orwelliarrak hor daudelako egon, eta gizarte zibilaren auto-eraikuntzan errekonozitzen dugulako gure estilo, pentsamendu eta praxi politikoaren funtsezko ardatza. Estatuak beti dakar boterearen kontzentrazioa, klase politikoaren eraketa arriskutsua, biolentzia fisikoaren monopolioa, burokrazia garesti eta monolitikoa...

Gainera, publiko/pribatu gisako dikotomia klasikoak, hein batean, gainditzeko beharra ere badugu: erakunde publikoak ez dira gizarte kohesiorako eta babeserako aukera bakarrak, eta erakunde pribatu guztiak ez dira irabazi asmoan oinarritzen. Euskaldunok adibide garbiak ditugu geurean: hezkuntza munduan ikastolak, esaterako. Bestetik, badago zer arrazionalizatu administrazioaren gestio publikoan, berau efikazagoa eta efizienteagoa egiteko.

Baina, aldi berean, gaurko zirkunstantzia sozial eta historikoetan ezkerrek defenditu beharra dauka lortutako eskubideak, eta aberastasunaren banaketan emandako aurrerapauso inportanteak (politika sozialak, zerbitzu publikoak...). Horregatik, ARALARko gizon-emakumeok gizarte kohesiorako mekanismoen indargabetze ekintzen aurka izango gaituzte, are gehiago eraso horiek funtsezko lorpen historikoen eta hiritarren oinarritzko eskubideen kontra joz gero. Adi egon behar dugu eraso neoliberalen aurrean. Aldarrikapen horiek giza garapen jasangarriarekin bateratu beharko ditugu.

Edozelan ere, ezer gutxirako balioko du Estatuak, gizarte zibil indartsurik izan ezean. Horregatik, gizarte erakundeen eta mugimendu sozial aurrerakoien indartzea behar dugu, Estatuarekiko autonomia gordez eta beraien gestio ahalmenak indartuz. Ez dira errazak Estatuaren

(administrazio edo gobernuaren) eta gizartearen arteko harremanak. Baina aldi berean, bien arteko sinergiak eta artikulazioak gauza daitezke, gizartearen eraikuntza bilatze aldera.

---

### *Ezkerraren etorkizuneko agenda eta desafioetako batzuk*

---

## **16. Globalizazio neoliberala, elkartasunaren internazionalizazioa**

Neoliberalismoa, egun bizi dugun kapitalismoaren fase berria dugu. Arrazoi ekonomikoa arrazoi goren bihurtu da, eta bestelako kontsiderazioak irrazionaltzat hartzen dira, eraginkortasun ekonomikoaren zerbitzura ez dauden heinean. Ekonomia politikaren gainetik jarri da, merkatua demokraziari gailendu zaio.

Aldi berean, norbanakoaren atomizazioa indartzen duen pentsamendu eta praxi moldea dugu neoliberalismoa: ekimen indibidualaren berrindartzea eta gatazka sozialaren indibidualizazioa sustatuz. Arazo sozialak eta ekonomikoak (langabezia, pobrezia, bazterketa...) eremu pribatu-pertsonalean administratzen dira gero eta gehiago, eta pertsonen kulpabilizazio prozesuek indarra hartzen dihardute.

Denboraren poderioz diskurtso egituratu eta orohartzailea bilakatu zaigu, munduko gobernu gehienen (hirugarren mundua barne) jokabiderako irizpide nagusi. Neoliberalismoa, funtsean, gauza guztien gainetik etekin ekonomikoa lehenesten duen giza antolamendurako proposamen eta programa politikoa da. Horren aurrean, ekonomia eta produkzioa herritarren beharren arabera antolatzearen beharra aldarrikatzen dugu, ekonomia ezin baita oinarritu lehiakortasuna eta etekinak areagotzea beste helbururik ez duen printzipio estuan.

Globalizazio garaiak bizi ditugu, eta gertakari horrek lurralde historiko berrian kokatzen gaitu. Garai honetan oraindik ez dugu erantzun biribilik, eta bitartean, merkatu ekonomian oinarritzen den kapitalismo globalak bere logika hedatu egin du bi norabidetan:

- Norabide horizontalean, mundu guztira zabaldu baita (hedapen geografikoa),
- eta norabide bertikalean, merkatu logikak (logika razional-instrumentalak) giza jardueraren alderdi ezberdinak kolonizatu baititu. Merkatu-ekonomia batetik merkatu-gizarte baterako jauzia planteatzen ari zaigu. Bi bide erabiltzen du gizarte kapitalistak horretarako: gizarte errealitate oro merkantzia kontsideratzen du batetik; bestetik, gizakion arteko harremanak erosteko ahalmenean oinarritzen ditu, hau da, diruan.

Kapitalismo globalaren hedapen honek ez du apenas kontrol politiko edo sozialik, zenbait esfortzu kontrol hori lortzeko norabidean jarri nahi badira ere (Europar sozialdemokraziak gobernura heldu izana horren adierazle izan daiteke). Funtsean, espazio ekonomikoa kontrol politikotik urrundu egin da. Badirudi zaila izango dela globalizazioaren gertakaria saihestea, baina ezker proiektu batek globalizazioa demokratikoki gobernatzearen aldeko ekimena bideratu beharko du. Izan ere, globalizazio neoliberalak eragile ez politikoei mundua konfiguratzeko boterea ematen die, eta ostera, hautatutako eragileei boterea kendu.

Hazkuntza ekonomikoa arautu beharra dago, berau bat etor dadin demokraziarekin, askatasun indibidual eta kolektiboekin, eta aberastasunaren banaketa justuarekin. Merkatuaren eskubideen gainetik, gizon-emakume guztion eskubideak daude, eta ekonomiaren beharritan gizarte justizia kontrajarri behar zaio. Ekonomia gizartearen zerbitzura eta gizakion mesedetan jarri gura dugu, hori baita sozialismoaren funtsa. Sozialismoak gizartearen lehentasuna aldarrikatzen du ekonomiaren gainetik, eta gizartearen helburuak lehenesten ditu helburu ekonomikoen aurretik.

Arrazionalitate ekonomikoaren eremuan enklabeak askatzean dago gakoa, arrazionalitate horrek gizartea menpean hartzeko duen joerari mugak ezartzeko, eta arrazionalitate hori gizarte proiektu baten zerbitzura jartzeko. Sozialismoak hortxe du oinarri ideologikoetako bat: helburu etiko eta politikoek, jarduera ekonomikoak gizarte bizitzan duen lekua mugatu behar dute. Munduko leku eta esperientzia ezberdinetatik norabide horretan borrokatzen diharduten eragile eta indar politiko-sozialen multzoko parte sentitzen gara ARALARko gizon-emakumeok.

Borroka horretan ondokoak izan daitezke orientazio orokorrak:

- Mundu merkatuaren logikaren aurkako lana, eta aldi berean, logika horiek bultzatzen dituzten erakundeen kontrakoa ere (Mundu Bankua, Nazioarteko Moneta Fondoa, G-7...).
- Merkatuak errekurtsoen banaketan probokatzen dituen ezberdintasunak salatu eta borrokatu.
- Merkatuak sortzen dituen desorekak gizarte elkartasunean oinarritutako politikekin konpondu.
- Ingurumenaren defentsa erradikala.
- Politikaren lehentasunaren aldarrikapena.

Ekonomiaren desarauketa erradikala bizi izan dugu azken hamarkadetan, eta badirudi ber-arauketaren aldeko bide politikoa izan daitekeela eman beharreko erantzuna. Merkatu kapitalistaren arauketa berri honek merkatu logika mugatu beharko du, eta zeregin horretan estandar sozial, demokratiko eta ekologikoak jarraitu beharko ditu.

Nazioarteko ordena berria eskatzen dugu, justuagoa eta denen giza eskubideak errespetatuko dituen: eskubide zibil, politiko, sozial, ekonomiko eta kulturalak. Globalizazio neoliberalaren eta munduaren militarizazioaren kontra agertzen gara, eta justizia sozialaren eta bakearen alde. Beste mundu bat gura dugu, eta beste mundu hori posible dela aldarrikatzen dugu.

Ondoko neurriak exijitzen ditugu: kanpo zorraren abolizioa; Tobin Tasaren moduko neurrien ezarpena; emakume guztien eskubideen defentsa; nazioarteko jarduera espekulatiboen amaiera; eta herrien autodeterminazio eskubidea.

## **17. Demokrazian sakondu**

Globalizazioak heteronomia egoerak indartu ditu, planetako lurralde askotako autonomia eta autogobernu demokratikorako mekanismoak ahulduz edo ezabatuz. Testuinguru global horretan kokatzen dugu gure demokraziaren gaineko gogoeta. Bestetik, gizarte modernoetako demokrazia parlamentarioaren balioa onartu beharrean gaude, hiritarren eskubideak beste sistema politiko batzuek baino hobeto errespetatzen jakin izan duelako.

Hala ere, demokrazia parlamentarioaren hutsuneak gero eta nabariagoak dira. Besteak beste:

- Interes propioak gorpuztuko dituen klase politikoa sortzen du;
- indar sozial eta politiko handien alternantzia adostuan oinarritzen da;
- politikaren tarte estuan aplikatzen da soilik, eta ez gizarte bizitzako beste arlo klabe batzuetan (ez da ekonomiara hedatzen, ez hezkuntzara, ez udaletara, ez administrazio orokorrera, ez osasunera...);
- gutxiengoaren eskubideek ez dute behar adina bermerik (gutxiengo linguistikoak, erlijiosoak...).

- Baina gauza guztien gainera, lau urtean behin hautestontzia medio bideratutako parte hartze demokratikoak (politikoei emaniko karta zuria, ondoren gura dutena egin dezaten) ez du inondik inora agortzen demokrazia kontzeptuaren zabalera.

Europako Batasunaren izaera demokratikoa oraindik zalantzazkoagoa da, erakunde klabeak (Batzordea eta Kontseilua) ez baitira demokratikoak, eta Europako Parlamentuaren boterea eta ahalmena umilak dira oso. Bestetik, eta esandako guztiaren ondorio gisa, gure gizarteetako politikari eta alderdi politikoen deslegitimazioa ere hazten doala dirudi.

Egoera orokor horren aurrean, gizartearen demokratizazioa, ezker ikuspegi eraldatzaile batek errebindikatu beharreko aspektu nagusietakoa da, eta gizadiak betetzeke duen aspirazio zaharretakoa. Pertsona eta kolektibo guztiek euren bizitzan eragina duten faktoreen gaineko boterea izatea (benetako demokratizazioa), sekula amaitzen ez den bide irekia da, fondorik gabeko putzua. Horregatik, bidean jartzea da garrantzitsua, eta ARALARrek gizartearen autoeraketa esperientziak indartzea du ipar; hots, gizarte zibilarren auto-antolakuntza hazkorra gizarte bizitzaren eremu guztietan.

Demokrazia liberaleraino hautetsiekiko hautesleen kontrola ezartzeko eta, aldi berean, bien arteko hartu-emanak indartzeko bideak egon badaude, hauteskunde-zerrenda irekiak dira horietako bat. Horiekin, gainera, hautetsiengan alderdien aparatuek duten gehiegizko kontrola leuntzen da. Bidea egin daiteke, halaber, pertsona egokiagoak politikan aritu daitezten eta ez aparatuei bati fidel izanik politika profesiotzat dutenak. Horregatik, hain zuzen ere, ARALARrek hauteskunde-zerrenda irekien alde egingo du barne- zein kanpo-esparruan. Era berean, hautesle eta hautetsien arteko hartu-emanak estutu eta indartuko dituen mekanismoen alde egingo du.

Kontuan izan behar dugu demokrazian sakontzeko hainbat gauza behar direla: informazioa, komunikazio egokia, hezkuntza, berdintasuna, indar harreman orekatuak... Oinarri objektibo horiek ezinbestekoak dira demokrazia entelekia teorikoen infernura bidali gura ez badugu.

Zabaltzen ari den ziklo historiko berrian, euskal demokrazian sakontzeko beharra ikusten dugu, erreferendumak, herri kontsultak, edo herri ekimen legegileak moduko formulak ugaritzeko eta indartzeko konpromisoa hartzen dugularik (bide hauek traba dira parlamentarismoan instalatutako indar politikoentzat). Demokrazia formaletik *demokrazia parte hartzailearen* aldeko jauzia da proposatzen duguna, besteak beste etorkizuneko ezker ezberdinak puntu honetan egin baitezakete bat (Porto Alegren batutakoek hala demostratzen dute).

Demokrazia parte hartzaileak hainbat onura ditu: bizitza politikoa astintzeko eta demokratizatze bidea da, hiritarren ahotsa erabaki guneetan iltzatuz eta demokrazia liberal mugatua gaindituz; behetik gorako gizarte funtzionamendua sustatzen da, gizarte aldaketarako ezinbesteko norabidea dena (benetako aldaketak lortu gura badira); globalizazioaren tendentzia ez demokratikoei aurre egiteko modu bat da; hiritarra demokraziaren produktore bilakatzen da, ez kontsumitzaile hutsa...

Ez da ahaztu behar, bestetik, demokrazia parte hartzailearen mekanismoek egoera gatazkatsuak konpontzeko, auziak bideratzeko eta, oro har, gizartean eragin handia duten arazoak gehien adostasunarekin gainditzeko duten ahalmen handia, esaterako, NIMBY (*Not in my backyard* = nire baratzean ez) izenekoak bideratzeko.

Horregatik guztiagatik, gobernu-gestio parte hartzaileak lehenestearen aldekoak gara. Bide honetan, eremu lokalen indartzea garrantzitsua da, instituzio lokalak baitira hiritarrendik gertuen daudenak. Plano lokaletik abiatzen den ekintza politikoaren garrantzia aldarrikatu gura dugu, giza gertutasunerako eta ekintza kolektibo solidariorako eremu pribilegiatua baita berai. Gobernu-gestio parte hartzaileak ere plano honetan dute esperimintatzeko aukera oparoa. Aldi berean, plano lokaletik plano globalerako haria sendo eratzea bilatu behar dugu.

Demokrazia parte hartzailea ez da ulertu behar erreferendum-katea edo asamblearismo huts bezala, are urrunago baitoa. Gizartearen iritzia ezagutzeko eta kontuan hartzeko beste mekanismo parte hartzaile batzuek erreferendumez eta batzarrek baino kohesio gehiago eman diezaiokete gizarteari erabakia hartzeko unean edo egoerak juzkatzerakoan. Horietakoak dira, esaterako, Danimarkako hiritarren panel teknologikoak, hiritarren epai-mahaiak, aurrekontu parte hartzaileak eta zentzu komunaren kontseiluak. ARALAREk bide horiek eta antzeko beste batzuk jorratuko ditu erabaki politikoetan gizartearen parte hartzea handitzeko eta bideratzeko, bereziki, gatazkara eraman dezaketen erabakiak hartzeko unean, adibidez, hondakinak tratatzeko plan bat diseinatzerakoan.

Geure kolektibo sozio-politikoaren egituraketan barne demokrazia bideratzearen eta etengabe sustatzearen aldeko konpromisoa hartu gura dugu. Aldi berean, pertsonalismoetan ez jausteko konpromisoa ere hartu gura dugu, ezker abertzalearen kultura politikoaren ekarpen eta ezaugarri positiboenetako bati eutsiz.

*Demokrazia ekonomikoa* da defendatzen dugun beste printzipio garrantzitsu bat, ez baitago demokraziarik demokrazia ekonomikoa barik. Bizi dugun garaian kontua ez da dagoeneko ‘merkatua bai’ ala ‘merkatua ez’; kontua ez da ‘merkatu-ekonomia’ ala ‘planifikazio ekonomikoa’.

Batetik, garbi dago gaurko indar erlazioak ez duela ahalbidetzen merkatu ekonomiarekin hausturirik burutzea, eta hiritarren sentsibilitatea ere ez doa hortik. Ahal izanda ere, kontuan izan behar dugu planifikazio ekonomikoa oinarritutako erregimenak autoritarismo jasanezinak garatu dituztela (ezkerraren antitesia) eta efikazia ekonomikoa traketsa demostratu dutela. Beraz, ez gaude planifikazio ekonomikoa oinarrituko den ezker artikulatzeko garai historikoan. Planteamendu zaharritua bezain sinplea dugu hori.

Merkatuak, ostera, demostratu du hazkuntza ekonomikoa eta materiala sortzeko gaitasuna duela. Baina hori esan eta gero, aipatu beharra dugu ez gaudela ezta merkatu ekonomia erabat irekia eta muga gabea onartzeko garaian ere, ikusi ikusten dugulako merkatuak sortzen dituen desoreka, bazterketa, gosea, pobrezia, gerra eta gatazkak zelakoak eta zenbatekoak diren.

Arrazionalitate ekonomikoa eta merkatu legeari dagokion lekua eman behar zaio. Baina ez dagokiona baino leku gehiago. Horregatik, giza garapen orekatuak eskatzen dituen mugak jarri behar zaizkio. Horretan datza desfioa. Merkatuak helburu sozialen alde egin behar du, merkatuak gizartearen beharrezko erantzun behar die, ez gizarteak merkatuaren exijentziei. Merkatu ekonomiarekin bizi beharrek bere exijentzietako batzuk onartzera garamatza, baina ez bere exijentzietara makurtzea. Merkatu legea domestikatu beharra dugu, irizpide sozialak (lan baldintzak, gizarte segurantzak, politika sozialak, aisialdia eta denbora libre...), demokratikoak (hiritarren eskubideak ekonomia eta enpresa arautzeko) eta ekologikoak (garapen eredu eutsigarria eta ez produktibista) lehenetsiz.

Beste alde batetik, hiritarren ongizatean eragin zuzena duten zerbitzu batzuk ezin izango dira inoiz merkatuaren legearen menpe laga, bermatu nahi bada hiritar guztiek horiek probestu ahal izango dituztela. Beraz, botere publikoen parte hartze zuzena behar dute, bai merkatuko agente izanik, baita merkatuari mugak jartzeko baliabideak eta legeak garatuz ere. Horietakoak dira, gutxien gutxienik, honoko hauek: osasuna, informazioa eta komunikabideak, garraioa, energi hornikuntza, hezkuntza eta era guztietako azpiegiturak.

Beraz, gizartearentzat klabeak diren ekonomia guneak publikoki gobernatzeko eta arautzeko eskubidea aldarrikatzen dugu, planifikazio osagaiak eta politikak beharrezkoak baitira merkatuaren hedapen hazkorra saihesteko, herri sektoreak babesteko, eta gizarte kohesioan aurrera egiteko.

Horrekin batera, politika sozialak gure arduren eta proiektu politikoaren erdigunean kokatzen ditugu, merkatuaren dinamika ez demokratiko eta kaltegarrien aurka eginez. Besteak beste, ondokoak dira politika demokratiko baterako osagaiak:

- Kapital finantzarioaren dominazioaren kontrako borroka;
- soldatapekoen bizi mailaren hobetzea;
- gizarte ekonomiaren aldeko politikak aktibatzea, kooperatibak sustatuz eta lagunduz, gestio demokratikoagoa eta bestelako enpresa jarduerak bideratzen dituzten enpresa-errealitateak diren heinean;
- ekonomia solidarioa eta enpresa alternatiboak sustatzera zuzendutako ekimenak bultzatzea;
- ezberdintasun sozialak murriztera zuzendutako elkartasun neurriak;
- marginazioaren eta gizarte bazterketaren kontrako mugimendu eta gizarte ekimenen sustapena.

Azkenik, bizi dugun iraultza teknologikoak eragin zuzena du geure bizitza indibidualetan, euskal gizartean, zein munduan. Aukera teknologikoek beti erantzuten diete balore eta interes konkretuei. Horregatik, garapen teknologikoaren kontrol demokratikoa aldarrikatzen dugu, berrikuntza zientifiko eta teknologikoak balore aurrerakoietan oinarritutakoak eta interes kolektiboen mesederako izan daitezen, ez balore autoritarioak eta interes partikularrak elikatzeko bide. Giza garapenaren zerbitzura jarritako teknologiaren alde agertzen gara.

Bestalde, gure inguruan azken urteotan zerga-politika bidegabea indartzen ari da, zeinetan zerga ez-zuzenen presioa handitzen ari baita zerga zuzenen kaltean pertsona fisikoen kasuan. Sistema horrek berdin eragiten dien errenta altua zein errenta baxua dutenei. Halaber, pertsona fisiko zein juridikoen kasuan iruzur fiskala nahikoa handia dela pentsatzeko aztarnak egon badaude.

Ezkerraren ikuspegitik, pertsona fisikoengan zerga ez-zuzenenak lehenesten dituen sistema bidegabea da. Horrexegatik, ARALAREk, 'gehiago jasotzen duenak gehiago ordaindu behar du' esapidea aplikatuz, norberaren errentaren arabera zerga zuzenak lehenetsiko ditu guztiei berdin aplikatzen zaizkien zerga ez-zuzenen kaltean. Horrek ez du esan nahi, hala ere, zerga ez-zuzen sektorialik ezin denik aplikatu. Zerga sektorial horiek politika jakin batzuk edo gizarte-ohitura batzuk aldarazteko erabil daitezke. Horietako bat autopistetako bidesaria izan liteke, adibidez.

Era berean, iruzur fiskala borrokatzeko eta minimizatzeko ekimenak eta politikak bultzatuko ditu ARALAREk.

Sozietateen zergaren alorrean ARALAREk politika fiskal diskriminatorioa sustatuko du. Politika horren arabera, sozietateak hainbat faktoreren arabera desberdin zergapetuko dira: izaera juridikoa, lukuru asmoa, irabazien erabilera, langileen artean irabaziak banatzea, onura publikoa, etab. Gainera, ARALAREk mezenazgoa eta sozietateek irabaziak kultur edo gizarte-intereseko ekimenak burutzeko usatzea bultzatuko duen politika fiskala sustatuko du.

## **18. Garapen jasagarriaren alde**

60-70 hamarkadetan gertakari garrantzitsu batez jabetuko da gizadia: hazkuntza ekonomiko kapitalistak baditu mugak, planetak berak ezartzen dizkionak. Mendebaldarron arrazionalitate tekno-ekonomikoak eta logika desarrollistek ez digute etorkizunik eskaintzen. Planetaren ustiaketa intentsiboak ezingo du askorik iraun. Are gutxiago, planetako Hegoaldeko biztanleak ezin dute europarron bizi maila eskuratu, planetak ez baitu horretarako errekurso nahikorik. Gizarte

mendebalderrek eraiki duten zibilizazio produktibistaren kuestionamendua dago gure ezker sentsibilitatearen muinean. Guk gura dugun proiektu eta kontzientzia sozialistan, ingurumenaren aldeko borroka printzipio nagusi kontsideratzen dugu.

Gure ostean etorriko diren belaunaldiei zor diegun elkartasunaz ari gara. Hemendik aurrera ezin izango dugu epe laburreko konponbiderik onetsi, baldin eta horrek gure seme-alaba eta iloben bizi baldintzak txartzea ekartzen badu.

Ikuspegi honek neurri sakon eta erradikalak eskatzen ditu hainbat eremutan: nekazaritzan; garraioan; energiaren produkzioan, distribuzioan eta erabileran... Aipatutako arazo hauek guztiak bideratzeko zientzia eta teknologiaren garapenak bitartekoak eman baditzake ere, ez dira nahikoa eta bestelako neurriak hartzea ezinbestekoa izango da. Aldaketa sakonak eskatzen ditu mendebaldarron bizi estiloan ere, jakin badakigulako gure bizi maila ezin dutela planetako biztanle guztiek izan, eta gure aberastasunak besteen pobrezian dituela erroak. Beraz, gure bizitza estiloak kuestionatzearen beharrezana aldarrikatzen dugu, koherentziak lortzen eta kontraesanak leuntzen joan gaitezen.

Garapen jasangarriaren bidean aurrera egiteko eta, bide batez Kiotoko protokoloa bete ahal izateko, bestelako ekoizpen-eredua, garraio- eta energia-politikak aplikatu behar dira.

Garraio-politikari dagokiolarik garraio publikoa lehenetsiko da bidaiarien zein merkantzien garraiorako. Merkantzien garraioan tren eta itsasontzi bidezkoa bultzatuko da errepide bidezkoaren aurrean. Bide horretan Euskal Herria kohesionatzen eta egituratzen dituzten garraio-azpiegiturak lehenetsiko dira. Horretarako, euskal trenbide sarea osatzeko urratsak emango dira, baina oso garbi dugu abiadura handiko trenbidearen egungo proiektua, "Euskal Y" delakoa alegia, beharrezkoa ez izateaz gain oso kaltegarria dela gure herriarentzat, ekologia zein gizarte ikuspegitik. Era berean, gure hiri eta herrien planifikazio urbanistikoan eta horiek lotzeko errepide-planifikazioan bizikletaz eroso mugitu ahal izateari lehentasuna emango diogu. Hau guztia gauzatu ahal izateko zerga-politikak eskura dituen erremintak usatzea ere proposatzen dugu.

ARALAREk bultzatuko duen energia-politikak hiru oinarri izango ditu: energiaren erabilera jasangarria, energia alternatiboak sustatzea eta energia-iturrien dibertsifikazioa eta tokian tokikotasuna. Bestalde, fisiozko energia nuklearra erabiltzea ez dugu bidezkoa ikusten, energia-hornikuntzarako irteera egokia ez izateaz landa, arazo ekologiko larriak sortzen dituelako, hondakinen tratamendua esaterako.

Giza garapen jasangarriaren aldeko borrokaren alde konprometitzen gara, eta horrek gizarte mendebalderetako kontsumismoa kritikatzera garamatza. Gizarte aberatsetan, euskal gizartea barne, kontsumo konpulsiboaren aroan bizi gara. Kontsumoak funtzio garrantzitsu asko betetzen ditu gure gizartean, eta hor datza bere garrantzia eta indarra: behar sistemikoa da, integrazio sozialerako bidea, eta identitate indibidualaren osagai garrantzitsua.

Esan bezala, batetik, beharrezan sistemikoa da: sistema kapitalistak beharrezkoa du pertsonongan etengabe beharrezan berriak sortzea. Hau da, sistemaren bideragarritasuna bera gure kontsumoak neurrigabeak izatean datza, kontsumo irrazional horren menpe dago. Bestetik, kontsumitzen dugun heinean sozialki integratzen gara, kontsumoa baita gizarteko kide izateko bidea. Kontsumoa, azkenik, identitate indibidualaren euskarri sendoa bilakatu da gure gizarteetan. Izan ere, kontsumo ekintza gehienek ez dute behar objektibo bat asetzen, esangura sinbolikoan dute bere indarra: gizakiak bere auto-eraikuntza eta auto-errealizazio gogoia kontsumotik bideratzen du sekula baino gehiago, hortxe aurkitzen du bere indibidualitatea oinarritzeko eta besteengandik bereizteko eremua. Neurri batean, beraz, norberaren izanaren eraikuntza eroste ekintzetan dago oinarritua.

Horrek guztiak, kontsumismoak egun duen garrantzia erakusten digu, dimentsio asko hartzen baititu eta pertsonon enajenazio iturri nabarmena bilakatu baita. Baina aldi berean, kontsumitzaileok esku artean dugun indar potentzialaz jabetu beharra dugu, gizartea eraldatzeko ekimen sendoak bidera baitaitezke kontsumo arduratsuen bidez. Zenbaiten ustetan, etorkizuneko kontzepzio eraldatzaileak lanean baino gehiago kontsumoan eta hiritar kontsumitzailean oinarrituko dira. Horregatik, kontsumitzaile gisa, modu kritiko, arduratsu eta kontzientean jokatzek duen garrantzia azpimarratu gura dugu.

Esandako guztiagatik, eta garapen jasangarriaren antitesian dagoelako, kultur aldaketa sakon baten beharra aldarrikatzen dugu: bai maila pertsonalean zein kolektiboan, 'nahikotasunaren nozioa' berreskuratzearen garrantzia aldarrikatzen dugu, 'zenbat eta gehiago orduan eta hobeto' maxima kultural kapitalista borrokatuz, eta 'honekin nahikoa daukat/daukagu' maximan oinarrituko den kultura berria sustatuz.

## **19. Emakumez eta gizonez**

Batzuen iritzian, XX. gizaldian iraultzarik eman bada, hori gizon eta emakumeen arteko harremanen eraldaketa izan da, edo beste modu batera esanda: emakumeek lortu duten gizarte posizio berria da aurreko gizaldiak utzitako datu nagusietakoa. Aldaketa hori baieztatzen duten hainbat datu daude, baina garrantzitsuenetakoa emakumea lan merkatuan integratu izana dugu. Emantzipazio ekonomikoa da, izan ere, emakumeen askapenerako lorpen garrantzitsua. Hezkuntzan ere aurrerapauso inportanteak eman dira. Gainera, emakumeen aldeko errebindikazioek indar sozial eta adostasun nabarmena lortu dute euskal gizartean.

Berdintasuna lortuta dagoelako ideia oso hedatuta dugu, eta hori izan daiteke egun feminismoak duen arazo larrietakoa, tentsio errebindikatiboa moteltzen duelako. Etorkizunean ideia horren kontra borrokatzea funtsezkoa izango da.

Horregatik, esan beharra dugu datu positiboekin batera datu negatibo nabarmenak ere baditugula. Oraindik orain, emakumeek gizonezkoen biolentzia fisiko bortitza jasaten dute (baita bortxa sinbolikoa ere, jakina), eta hilketak ere maiz gertatzen dira. Kulturalki patriarkala den gizartearen ondorioa da hori, gizonen dominazioa, neurri handi batean, bere horretan mantentzen duen gizartearen adierazpena.

Emakumeak oraindik presio kultural handiak jasaten dituzte mundu pribatura bildu daitezen, eta lan munduan integratzea lortzen dutenean ezinezko orekak lortzera bultzatuak dira: kanpoko lana (mundu publikoan integrazioa) eta etxe barrukoa (mundu pribatuko lanak eta zereginak). Mundu publiko eta pribatuaren arteko bereizketa apurtu beharrean gaude, eta horretarako gizonezkook aldaketa nabarmenak barneratu behar ditugu. Lan munduan ere ageriko diskriminazioak gertatzen dira, lanpostu berean nabarmen gutxiago kobratzen baitute emakumeek.

Borroka feministaren helburu nagusia emakumeek autonomia lortzea da. Funtsean, emakumeek gizartearen esparru guztietan berdintasunean parte hartzeko eskubidea eta bizitza proiektu propioa garatzeko aukera dugu helburu. Berba batean, emakumeak beraien bizitzaren jabe bilakatzea da gure xede nagusia.

Dependentzia ekonomikoa gaindituta ere, sakonak dira oraindik emakumeek bizi dituzten dependentzia kultural eta psikologikoak, trabak jartzen dizkietenak autonomia erreala garatzeko aukerari. Autonomia proiektu horrek dependentzia ekonomikoan oztupo handia izaten segitzen du, baina arlo horretan aurrerapausoak eman ahala, beste zailtasun batzuk agertzen dira. Emakumeen dependentzia-egoera hezkuntza-prozesu konplexu, sakon eta multidimentsionalak probokatzen du, genero-sozializazio konkretua gertatzen baita. Emakumeen egituraketa psikologiko oso bat produzitzen da sozialki, eta sozializazio berezitu honek bidaltzen du emakumea dependentzia harreman eta egoeretara. Bortxa sotil baten aurrean aurkitzen gara, zeharkako bideak erabiltzen

dituena menerapena eta autonomia eza sortzeko. Bortxa sinboliko honek erreproduzitzen du, neurri handi batean, emakumeen gaurko zapalkuntza, zeina hein handi batean inkontzientearen eremu zailean bideratzen den.

ARALARko gizon-emakumeok gizarte ez patriarkal baten alde sentitzen gara, eta norabide horretan jarriko dugu gure ekarpen politikoa. Feminismoarekin (ideologia gisa) eta mugimendu feministarekin bat sentitzen gara, eta norabide honetan jarri gura dugu gure esfortzu eta gogoaren zati handia. Feminismoa gizarte modernoek jaso duten ekarpenik inportanteenetakoa da, eta hala izaten segi behar du.

Feminismoak balore berriak sustatu ditu, eta baita bizitza modu berriak ere. Mundu sentimental berri baterako euskarri garrantzitsuak ditugu feminismoan eta emakumeen eskubideen defentsan. Gizarteko edozein aspektu baloratzeko orduan, genero ikuspegiak duen garrantzia aldarrikatzen dugu: politika sozialak, elkartasun neurriak, etxebizitza politikak, hezkuntzaren inguruko planteamenduak, osasuna... Bestela, Euskal Herriko populazioaren erdiaren interesak dominazio molde patriarkalen atzean ezkututzen ibiliko ginatke.

ARALARko gizon-emakumeok bokazio ez patriarkala aldarrikatzen dugu. Eta aldi berean, feminismoa gizonezkoen gauza ere badela ere bai. Emakumeen posizioaren aldaketak gizonezkoek euren barruari begiratzea eskatzen du, beraiek ere aldatuz. Batera egin beharreko bidea da; seguru asko ez beti, eta ez leku guztietan, emakumeak eurak izan behar baitute borrokaren protagonismoa dutenak. Baina gizonek dagoeneko ezin dute pentsatu feminismoa emakumeen errebindikazioa denik. Aldaketa soziala bilatzen duen ezkerreko proiektu orok integratu beharra dauka emakumeen zapalkuntzaren kontrako borroka, eta proiektu horretako kide guztiak inplikatu behar dira bertan, aldi berean aniztasuna errespetatuz.

Horrek maskulinitatea birpentsatzea eskatzen du, hainbat pertzepzio, balore eta jarrera kuestionatzea. Gizonak izateko modu berriak asmatu behar ditugu, gure bizierak, pentsaerak eta sentierak kuestionatuz. Gizonek ere bide askatzaile bat dute feminismoan. Soilik bide horretatik egingo dute bat emakumeek aldarrikatzen duten aldaketa askatzailearekin, eta soilik horrela egin ahal izango dugu bide hori batera.

## **20. Enpleguaren krisia, lanaren gizartearen amaiera**

Lana, edo hobeto esanda enplegua (ordaindutako lana), gizarte antolamenduaren erdigunea izan da, eta oraindik ere bada. Lana izan da sostengu materialerako bidea, ematen dituen diru sarrerak medio. Lana izan da, beraz, gizarte integratzaile biderik inportanteenetakoa, diru sarreretatik aparte, harreman sare batean ere integratu gaituelako. Gure status soziala ere lanaren bidez lortu izan dugu. Gizarte segurantza ere lanak bermatu izan digu (langabezia, zahartzaroa, osasuna...). Eta, finean, identitate pertsonalaren aspektu zentrala ere izan da lana. Horri guztiari 'lanaren gizartea' deitu izan zaio.

Lanaren kulturaren eta gizartearen goraiatzeko honetan ezkerrek eta ikuspegi sindikalistak zeresan handia izan dute, ezker ikuspegi klasikoa ere lanaren ideologiaren eramaile historikoa izan baita.

Egun, lanaren gizartearen amaiera bizi dugu. Lanak, hein handi batean, galdu egin du gizarte industrialean zuen zentraltasun pertsonal eta soziala. Langabezia eta enpleguaren prekarizazioa dira 70 hamarkadatik aurrera lanaren fisionomia aldatuko duten gertakariak. Lanak XX. mendean lortu duen estatutu kolektiboa urte gutxiren buruan urratuta ikusi dugu, Espainiako gobernu sozialdemokratek zein eskuinekoek bideratutako lan erreforma ezberdinen eraginez. Enpleguak eskubide eta garantia asko galdu ditu, eta langileen egoerak izugarri dibertsifikatuz eta indibidualizatuz joan dira.

Prekariatatearena da sortu den arazo larrietakoa, eta etorkizunean, tendentzia guztien arabera, indartu egingo da. Joera horren biktima nagusiak gazteak eta emakumeak dira. Ekonomiari eta merkatuak malgutasuna behar dute, ziklo produktiboei arin eta sendo egokitzea, eta aldi berean, beharizan horiei egokitu beharra dute gero eta populazio sektore zabalagoek. Ekonomiaren beharizanak eta langile zein herritarrenak uztartzea izango da etorkizuneko desafio handi bat, helburu ekonomiko eta sozialak orekatuz. Merkatuak behar duen malgutasunari, langileentzat probetxugarria izango dena eta kolektiboki adostutakoa kontrajarri beharko zaio.

Aldaketa objektiboez gain plano subjektiboan ere izan da aldaketarik. Askok langile klasearen gainbeheraz hitz egiten dute: langileen mundu tradizionalak dagoeneko ez du ordezkaten kultura konkretu bat, bizitza estilo bat, kokapen espazial jakin bat (langile auzuneak), pentsamendu eta proiektu politiko antagonista eta alternatibo bat... Bizkaiari bagagozkio (herrialde hau izan baita lurralderik industrializatuena), Bizkaiko Labe Garaiek gorpuztu duten figura industrial klasikoa Guggenheim-ek ordeztu du, postmodernitateak eta kontsumismoak, hain zuzen. Sinbologia eta subjektibitate kolektibo berri baten aurrean gaude, eta langile mugimenduaren desartikulazio erlatiboa horren arrazoi eta ondorioa da.

Oraindik ere gizarte eragile askok enplegu osoko egoeraren aldeko borroka aldarrikatzen dute, lehengo lan erregimena oinarri hartuta. Baina dagoeneko, orain arte ezagutu dugun lan erregimen tradizionala (irailatik uztailerakoa, astelehenetik barikura, egunean zortzi ordu, eta 40 urtez fabrika berean) bukatu da, eta ez du ematen berriro itzuliko denik. Honek ez du esan gura lana bukatuko denik, hainbatek erabilitako hipotesia aipatzearen, baizik eta orain arte lana bizitzeko eta ulertzeko izan dugun modua aldatzen ari dela.

Enplegua gaixorik dago, eta neurri berriak beharko dira berau sendatzeko. Ezkerraren zati handi batek errezeta zaharrekin jarraitzen du, hazkuntza ekonomikoan oinarritutako politikak jarri, ia eskusiboki, konponbidearen erdigunean. Baina gero eta garbiago geratzen ari da hazkuntza ekonomikoak ez dakarrela neurri bereko enplegu sorrera, eta beraz, hazkuntza ekonomikoak *per se* ez duela konponduko enpleguaren arazoa. Axioma zaharrak jausi dira. Izan ere, aurrerapen teknologikoaren eraginez gehiago eta hobeto produzitzen da gero eta giza lan gutxiagorekin. Indar produktiboei lortutako garapenaren ondorioz, posible da ondasun eta zerbitzu askoz gehiago produzitzea giza lan askoz gutxiagorekin. Hau da azken urteotako deskubrimendu garrantzitsu bat.

Hala ere, eta kontraesankorra bada ere, gero eta lan gehiago egiten da, edo hobeto esanda, lan merkatuan integratutako pertsonak lan erritmo intentsiboa oinarria duten lan diziplinetara egokitu beharra dute. Enpresaren kultura berria dago horren oinarrian, lana eta produkzioa antolatzekeko modu berriak. Globalizazio garai honetan enpresen abantaila konpetitiborako heldulekua ez da horrenbeste teknologia (merkatuan dagoena eskuratzen da), ez eta kapitala (merkatu finantzarioan lortzen da), giza 'errekurtsoak' baizik. Horregatik, langileari gero eta inplikazio handiagoa eskatzen zaio, enpresa ideologiak barneratzea, *management* modernoaren eta gestio eredu parte hartzaileen haritik: inplikazio intelektuala, emozionala eta lanarekiko disposizio totala. Baliteke arrazionalitate ekonomiko-enpresarialak bere atzaparrak hiritarren lurralde intimoenetan pausatzea lortu izana, aurrera daraman hedapen hazkorraren bidean eta bereak ez diren lurraldeen kolonizazio etengabeari jarraiki. Molde berri horien ondorioz, gauza asko aldatu dira. Besteak beste, kapitala eta lanaren arteko gatazka historikoa eraldatzen ari da.

Enpresa berria kolaboraziorako espazio gisa definitua da, ez gatazkarako jokaleku gisa. Anbibalentzia ezaugarri duen gertakaria dugu aipatu berri hau. Batetik, ikuspegi berri horretatik lan eremua, sekula baino gehiago, garapen pertsonalerako eta sormenerako espazio gisa azaltzen zaigu; gainera, lan-harremanen nolabaiteko demokratizazioa erakutsi dezaketen funtzionamendu osagaiak hedatzen ari dira enpresa barruan, eta atzean geratzen ari dira enpresaren antolakuntza taylorista eta hierarkiakoak. Baina bestetik, eta hementxe hasten da anbibalentzia, *burn out* gisako fenomenoak ikusten ari gara (langileen erretze prozesuak), lan erritmo intentsiboei erantzun behar zaielako, eta indibidualki administratu beharreko erresponsabilitate kargak masiboki hedatzen ari direlako.

Langile indibidualizatuaren figura nagusitzen ari zaigu. Gero eta baja psikologiko gehiago ikusten ari gara, pertsonen desegituratzea baita lan antolamendu modu berrien ondorioetako bat.

Beraz, lan arloan gatazka molde berrien aurrean gaude, gehienetan plano pribatu-pertsonalean kokatzen ari direnak. Gatazka horiek eremu publiko-politikora eramatea izango da etorkizuneko zereginetako bat, eta horrekin batera, lanetik kanpoko bizitzaren aldarrikapena: denbora libre, familia, lagun artea...

Enpleguaren krisiari ezkerretik eman izan zaion erantzunean ondokoa ere badago: enpleguaren hedapena bilatu da, hau da, oraindik komertzializatu eta profesionalizatu gabeko esparruetara zabaldu gura izan da enplegua. Merkatu logikaren pean eta arrazionalitate ekonomikoaren barruan egon ez diren giza jarduerak profesionalizatu egin dira. Bestelako logikak gidatutako jarduera asko (etxeko lanak eta zaharren zainketa dira horren adibideak) merkantzia bihurtu eta diruaren logikaren pean jarri direla salatzen dute askok. Arrazionalitate ekonomikoaren eta merkatu logikaren hedapena da horren ondorioetako bat.

ARALARko andre-gizonok bide guztiak baloratu behar ditugu enpleguaren arazoa konpondu aldera, aipatu berri hau barne. Baina gizarte molde berri batera goazela kontuan hartuko dituzten ikuspegiak ditugu begikoago, neurri berrietan jarriko dutenak arreta errezeta tradizionaletan baino gehiago.

Errezeta tradizionalak dualizazioa eta gizarte bazterketa egoerak indartzera eraman gaitzakete. Enpleguaren arazoak ekinbide molde berriak abiatzea eskatzen du, gizartean egiten den lan osoaren berrantolamendua ipar izango duena, etxeko lana eta lan boluntarioa ere kontuan hartuz. Horretarako bide bat lanaren banaketarena da, aberastasunaren banaketa bideratzeko ekinbide gisa ulertua.

*Oinarrizko errenta* izan daiteke arazoari irtenbidea aurkitzeko beste baliabide garrantzitsu bat, modu horretan apurtzen baita lanaren gizartearen oinarria den aspektua: enplegua eta hiritartasun eskubideen arteko lokarri estua. Hots, mundu guztiari ziurtatu beharko litzaioteko gutxieneko errenta bat, soil-soilik gizarteko kide delako, modu horretan aukera izan dezan beharrezko zerbitzu eta produktuak eskuratzeko. Gizarte orok ziurtatu beharko luke hiritar gutzien ongizate materiala eta bizitza duina.

## **21. Iparra eta Hegoa**

Mendebalde/Ekialde tentsioa desagertu zenetik, planetako Hegoalde eta Iparraldearen arteko distantzia mingarria jarri da lehen planoan. Azken hamarkadetan, planetaren gestio neoliberalaren eskutik, distantzia hori zabaltzen ikusi dugu, distantziek amildegi itxura hartzeraino.

Ikuspegi global batetik, gaurko mundua azaltzeko datuen bat aukeratu behar izanez gero, Hirugarren Mundua gisa ezagutzen dugun herrialdeen egoera jarri beharko genuke erdigunean: pobrezia, gerrek, elikatze ez egokiak, ur faltak, giza eskubideen urratzeak, gaixotasunek, eta beste gaitz batzuk egunero hiltzen dituzten milaka eta milaka lagun datua aukeratu beharko litzateke. Goseak egunero ehun mila lagun inguru hiltzen ditu, teknikoki gizaki guztiak elikatzeko adina janari badagoenean. Horixe da, ikuspegi globaletik, munduko datu politiko nagusia. Horixe gaurko giza arazo politiko eta etiko larriena.

Ikuspegi globalari eusten badiogu (eta gaurko munduak hala eskatzen du), nazio eta estatu barruko klaseen arteko gatazka ezin dugu dagoeneko gure zibilizazioaren gatazkaren erdigunean kokatu. Nazio, erregio eta kontinenteen arteko gatazka da egun munduaren klabe esplikatibo nagusia. Gaurko antagonismo nagusia maila planetarioan kokatu beharra daukagu, eta horixe izango da, seguruenera, XXI. mendeko gatazkarik garrantzitsuena.

Egunero gertatzen ari den giza tragedia horrek sustrai politiko garbiak ditu. Munduaren gestio politiko ultra-liberal horren aurka azaltzen gara geure konbentzimendu osoarekin. XXI. mendeko ezkerrek giza tragedia hau bere ardura politiko eta etikoen lehen mailan jarri beharko du, eta ARALARko gizon-emakumeok geure erresponsabilitate eta ardurak onartzen ditugu mundu egoera horren aurkako borroka politikoan. Arazo honen konponbide justu batek geure eguneroko bizitzan izan ditzakeen inplikazioak ere kontuan hartu behar ditugu: bizitza estilo eutsigarri eta solidarioak garatzearen aldeko esfortzuak egitea dagokigu, kolektiboki eta indibidualki inplikatur.

Planetako pertsona guztien eskubide zibil, politiko, sozial, kultural eta ekonomikoak aldarrikatzen ditugu. Hirugarren Mundua gisa ezaguna den eremua geure politika jarduera, ekimen eta gogoetaren gune inportante gisa ulertzen dugu. Hala eskatzen du gero eta interdependienteagoa den mundu globalizatu batek.

Batetik, aipatu berri ditugun desoreka horien ondorioz, eta bestetik, Euskal Herrian gertatu den populazioaren hazkuntza-tasaren beherakada nabarmenaren kausaz, gero eta gehiago izango dira gure artean bizitzera etorriko diren inmigranteak. Gure herriak pertsona horiek abegikortasunez hartzeaz gain, gizartea egoera horretara moldatzeko prestatu behar du. Etorkinak gutxi direnean bitxikeria kutuna dira, baina ugaritzen direnean jarrera xenofoboak emendatu egiten dira. Ezker abertzaleak arrazakeria oro errefusatu du betidanik, baina jarrera hori ez da aski gaur egun. Ez ditugu gure artean denboran oso urrun 'katanga', 'koreano' eta antzeko irainak. Euskal Herriak jakin izan du 1960ko hamarkadako inmigrazioa neurri handi batean integratzen, baina orain datorkiguna integratzen zailagoa izango da etorkin berrien balio kultural, erlijiosoak eta bestelakoak gure balioengatik are urrunago daudelako. Etorkinekin batera egin behar da bidea, Euskal Herrian integratzea bilatuz, beti ere giza eskubideen errespetua, sexuen berdintasuna eta laizismoa oinarri hartuta. ARALARko gizon-emakumeok jarrera xenofoboak salatuz, etorkinen eta bertakoon arteko begirunean eraikitako euskal gizarte baten alde egingo dugu.

## **22. Gizarte kulturantza**

Kultur aniztasuna izango da etorkizuneko gizarte mendebaldarren ezaugarri garrantzitsua, eta euskal gizartearena ere bai. Emigratio mugimenduen ondorioz, gizarte garatuak gero eta ezberdinagoak dira barrura begira, eta orain arteko irudi uniformeak zaharkituta geratzen ari dira. Tendentzia guztien arabera, gertakari hau areagotzen joango da datozen urteotan.

Baina gertakari honek gaur egun euskal gizartean dagoeneko duen garrantziaz eta suposatzen duen desafioaz jabetu beharra dugu. Beraien herrialdeetan ia batere aukerarik ez duten etorkinek lehen munduak ustez eskaintzen dituen aukeren bila datozkigu. Jada geure paisaia sozialaren parte dira, eta euskal paisaiaren parte izateaz gain, hiritartasunari dagozkion eskubide zibil, politiko, erlijioso, kultural, sozial eta ekonomikoak konpartitu beharra dugu. Hori ezean, bigarren mailako hiritarrak existitzea legitimatzen ariko ginatke.

Gertakari hau hedadura dezentekoa izaten hasia da euskal gizarteko eremu konkretuetan, eta gizarte bizitzako hainbat eremutan ditu inplikazioak: arlo ekonomikoan, politikoan, soziologikoan, kulturalean, hezkuntzazkoan, osasunean, ongizate politketan, etxebizitza politketan, hizkuntza plangintzetan... Honek tentsioak sor ditzake berandu baino lehen, eta ezker espazio politiko eta soziala osatzen dugunok argi ibili behar dugu, etorkinen eskubideen defentsan, etorkinen ongizatearen aldeko politikak errebindikatuz, eta elkartasun adierazpenak aktibatuz.

Gizarte guztiek esfortzuak egin beharko dituzte kultur aniztasuna eta kultur artekotasuna egoki administratu eta bizikidetzat aberasgarria lortzeko. Gure kasuan, gertakari honek dimentsio sakonagoa hartzen du, identitate eta kultur errealitate berezia bizi duen gizartea osatzen baitugu. Kultur eta identitate modelo finko, bakar eta sendorik bizi ez duen gizartea da gurea, hizkuntza

gutxitu baten errealitatea hartzen duena. Eta lurralde horretan dezenteko mugimendu migratorio batek desafio gehiago sortzen ditu.

Gure gizarteak dituen baldintzak direla eta, esfortzu berezia egin beharra daukagu. Euskalgintzak eta euskal hezkuntza sareak erronka berriak ditu, inportantzia handikoak, ziklo berri bat zabaldu dezaketenak. Horretaz jabetzea da lehen pausua, ondoren desafio berriei ekiteko eztabaida eta estrategiak finkatu beharko dira.

Euskal ikuspegiak bereziki gertu jartzen gaitu beste batzuk bizi ditzaketen zailtasunen aurrean, beraien identitate eta diferentziak normaltasunez bizitzeko orduan izan ditzaketen oztopoen aurrean. Identitate guztien errespetua eta garatzeko eskubidea dugu abiapuntu, eta ondorio logiko gisa, euskararen eta euskalduntasunaren defentsa ipar, bestelako biziera, hizkuntza eta identitateekin batera.

Bestetik, biodibertsitatearen galera hazkorra gertatzen ari den antzera, kultur aniztasunaren galera hazkorra gertatzen ari da gaurko mundu globalizatuan, eta gizadi osoak galtzen dihardu guztion patrimonioa dena. Zibilizazio eredu kapitalistak ingurumena deuseztatzeaz gain, kulturak ere deuseztatzen ditu.

Horren aurrean, planetako herrialde guztien eskubide politikoak aldarrikatzen ditugu (autodeterminazioa), eta baita kultur identitateari eta izaera propioari eusteko eskubidea, eta eskubide horren gauzapea ere. Planetaren kultur aniztasuna dago jokoan.

### **23. Pluralismoa, indibidualismoa eta zentzu krisia**

Gizarte modernoaren ardatza pluralismoa da. Sozietate tradizionaletan (aurre-kapitalistetan) egia iturri bakarrak gobernatzen zuen giza kolektiboa eta norbanakoaren existentzia. Erlijioa izan da iturri hori, gizadiaren historia luzean faktore integratzaile inportantea, mundua ulertzeko eta bertan orientatzeko funtzioa bete duena.

Egun, gizarte modernoetako kideok ez dugu mundu ikuskera bat eta bakarra konpartitzen. Aro modernoaren etorrerak egiaren eta existentziaren zentzuaren monopolioa bertan behera utzi du. Asko dira zentzuz hornitzen gaituzten instantziak (erlijio ezberdinak, ideologia anitz...), asko dira bizitza estiloak, postura etiko eta estetikoak, identitatearen artikulazio posibleak... Gizartearen dauden 'gu' anitzek irizpide normatibo, politiko, sozial eta identitario ezberdinak izan ditzakete.

Beraz, gizarte moderno aurreratuen ezaugarri estrukturala dugu pluralismoa. Gizarte moderno pluralietan jendeak ez du munduaren gaineko esplikazio bakarra, zehatza eta segurua. Dagoeneko bizitzaren zentzua ez dator emanda, sozietate aurreindustrialetan bezala, aukeratzeko aukera agertuko baita. Pertsonok munduan orientatzeko iparorratz (kolektibo) seguru eta orohartzailerik ez dugunez, itsasontzi indibidual bakoitzak bere giroskopio propioa sortu beharko du munduan orientatzeko. Hau da: batetik, pluralismoak bizi aukerak ugaritu eta aberasten ditu (zorionez); eta bestetik, pluralismoarekin batera zentzu kolektiboak ahuldu eta gero eta existentzia indibidualizatuagoak bizi ditugu. Bakardadea eta zentzurik eza ditugu arrisku, berauek bilatuak ez direnean batez ere (gure zaharren bakardadea esaterako; bestelako gizarte sektoreetara ere hedatzen ari da bakardadea, hiriguneetan batez ere).

Euskal gizarteak pluraltasuna oinarri-oinarrian du, gizarte modernoa osatzen baitugu. Baina geurean, gainera, beste gizarte askotan ez bezala, identitate nazional eta kulturalari dagokionean ere kontzentzu eza da nagusi. ARALARko gizon-emakumeok garrantzitsu ikusten dugu pluraltasun sakon horretaz jabetzea, eta euskal gizarte osatzen duten guztien adierazpen eta sentitzeko moduen aurrean errespetua eta onespena agertzea. Demokrazia, bestea errekonozitzera zuzendutako politika gisa uler daiteke. Horrekin batera, geure identitate nazional eta kulturalaren aldeko borroka demokratikoan sendo eta tinko aritzeko asmoa azaltzen dugu.

Gaurko bizitzaren pribatizatzeari eta zentzu galerei dagokienean, Euskal Herriak nolabaiteko errealtate komunitarioei eusten diela esan daiteke, gehiegizko tendentzia indibidualizatzaileak zertxobait orekatuz. Beste gizarte batzuekin alderatuz gero, hainbat dira pertsona indibiduala taldean txertatzeko bideak, eta oraindik sendoak dira instituzio eta erro komunitarioak (kale bizitzaren eta espazio publikoaren garrantzia; konpromiso politikoaren inportantzia; 'koadrila' gisako instituzioen indarra; kooperatibismoaren gisako ekonomia molde kolektibo inportanteak; gizarte mugimendu, elkarte eta asoziazio sare aberatsa; euskararen eta euskal kulturaren aldeko nerbio kolektiboa...). Baina inportantea da tendentzia orokorreari erreparatzea, gurean ere errealtate horien leuntze eta indargabetze prozesu bat adierazten duten datuak baditugulako. Joera indibidualizatzaileek batez ere hiriguneetan dute hazitokia.

Zentzuz hornitutako bizitza besteekiko interdependentziak onartuz eta biziz eraiki daiteke soilik (zentzua kategoria eta produktu soziala baita). Pertsonok, geure bizitzak zentzua duela sentitzea estuki lotuta dator besteentzat dugun inportantziarekin eta besteek guretzat duten inportantziarekin. Bizitza zentzuz hornitzeko besteekiko lokarriak ezinbestekoak dira: besteentzat garena, eta besteak guretzat direna, interdependentzia afektibo horretan sostengatzen gara gizakiok.

Gizarte moderno garatuetan, oso indibidualizatutako kideak (gero eta gehiago) bizi gara, eta bakoitza bere kabuz bizi ahal eta behar delako usteak sekulako indarra hartu du, auto-genesi bidez eraikiko bagenu bezala gure bizitza (indibiduo isolatuak gareneko auto-kontzientzia), besteekiko interdependentzia guztiak ahaztuz. Gure gizarte kulturaren, agindu edo axioma eran hedatzen ari da ideia hori: autoeraikuntza eta autoerrealizazio indibidualaren *aukera* bizi dugu inoiz ez bezala, eta aldi berean, oso indibidualizatuta datorren bizitza-proiektu moldea garatzeko *agindua*, gainera arrakastatsua eta koherentea.

Bizitza proiektu indibidualaren aukera gizarte modernoan lorpen garrantzitsuenetakoa dugu, baina aldi berean baditu kostuak: bizitzari zentzua bilatzeko arazoa da horietako bat. Gure gizarte aurreratuetan zentzu elementuak gero eta gehiago bizitzaren eremu pribatuan eraikitzen dira (familian, bikote harremanean, lagun artean...), baina zentzu horiek nahikoa ahulak eta prekarioak dira askotan.

Honekin guztiarekin, jakina, ez dugu esan gura, inolaz ere, erregresio kolektibista edo antzeko zerbait defenditzen dugunik. Baina kontuan hartu gura dugu gizakion dimentsio komunitarioak duen garrantzia. Kontuan izanda gizakiok izaki sozialak garela eta besteen beharra geure izaeraren muin-muinean dagoela, atomizazio soziala sufrimendu iturri gero eta inportanteagoa bilaka daiteke etorkizunean.

Aipatutakoaz gain, ekonomia zibilizazioaren erdigune bilakatu izanak (are gehiago globalizazio neoliberal garaian), geure gizarteetako zentzu galera indartu egiten du. Arrazoi tekniko-instrumentala eta kalkulu ekonomikoa bizitzaren gidari ia absolutu ditugu. Arrazoi tekno-ekonomikoa eta zientifikoa bere horretan helburu bihurtu dituen sisteman bizi gara, eta ez 'gizarte egoki' baterako bitarteko. Gizarte modernoan nolabaiteko tendentzia estruktural baten aurrean aurkitzen gara, eta berorri erreparaturik, badirudi bestelako balore-, esanahi- eta zentzu-sistemak (arrazionalitate instrumentaletik haratagoko baloreak) bizitza sozialeko ertzetara bidaliak direla.

Bada, garai honetan, bestelako zentzu sozialen eraikuntzan konprometituak sentitzen gara, bestelako doinuen aldeko bilaketa lan kolektiboan. Betiere, taldetasun sentimendu orekatuak bilatuz, autonomia indibiduala errespetatzea eta sustatzea helburu duen taldetasunak sortuz. Hauxe izango da etorkizuneko gizarte aurreratuek gero eta gehiago sentituko duten behar sakona, eta hauxe, beraz, ezkeraren ardura-gune garrantzitsua.

Horregatik, ezin dugu kontsideratu kontu hau politikatik haratagoko gertakari gisa, etorkizunean gizarte aurreratuetan giza sufrimendu iturri gero eta inportanteagoa izango baita; 'kultura ezaren ondoez' berria. Garapen material izugarria bizi izan duen gizartean, horixe izan daiteke gero eta gehiago sufrimendu iturria: lokarri afektibo ahuletatik eta esanahi sistema

kolektiboen desintegrazioetik ondorioztatzen den zentzu krisi sakona. Halaber, geure gizarteetatik aparte ere, mendebaldeko zibilizazio eredu hedatzearen ondorioz, munduko hainbat eta hainbat zonaldetan ikusten ari gara biziera eta zentzu-sistema tradizionalen ahultzea, eta horren ondorioz egoera zail eta erantzun gatazkatsuak gertatzen ari dira.

Gure gizarteari dagokionean, ARALARko andre-gizonok espazio komunitario-kolektiboaren (ber)indartzea eta aktore sozialen (ber)eraikitzea bilatu gura dugu, elkartasun eta binkulazioaren kulturaren hazitokia baitira horiek. Plaza publikoaren (ber)osatze hori indibidualtasunaren errespetua eta erresponsabilitate indibiduala gisako baloreei sendo eutsiz egin beharko da. Modu horretan, talde atxikimenduek kultura modernoaren oinarri den duintasun pertsonala eta indibidualitatea gisako funtsezko baloreak errespetatu beharko dituzte.

*Zentzuz bizitzeko eskubidea* aldarrikatzen dugu, zentzu beharra baita geure giza izaera antropologikoan dugun ezaugarri nagusietakoa.

#### **24. Duintasunez hiltzeko eskubidea**

Osasun-zientzien aurrerabideak gizakion osasun-egoera eta bizi-itxaropena ekartzeaz gain, ondorio ez horren positiboak ekarri ditu. Izan ere, teknologiaren laguntzaz pazienteen bizitza ia nahi adina luza daiteke egoera natural batean bizitzerik egongo ez litzatekeen kasuetan, adibidez arnasketa artifiziala erabiliz. Era berean, hainbat eritasunen ondorioz pertsona asko bizi-kalitate oso eskasarekin bizitzera kondenatuta daude.

Egoera horien aurrean ARALARek duintasunez hiltzeko eskubidea aldarrikatzen du. Pertsonak, norbanakoak, aipatutako egoeretan bere bizia eteteko hautu kontzientea egiten badu, horretarako eskubidea duela aldarrikatzen dugu. Era berean, gaixo terminalen kasuan, gaixoa bera erabakirik hartzeko gai ez bada, familiartekoek bizia artifizialki luzatzen ari diren terapiak eteteko erabakia hartzeko eskubidea dutela uste dugu.

---

### *Amaitzeko*

#### **25. Ezker abertzalearen espazio politiko-soziala indartu eta bateratzearen alde**

Gaurko euskal gizartean ezkerren indarrak banatuta daude. Ezker abertzalea bera zatikatuta dugu. Euskal ezkerren banaketa horrek soilik gizarte eraldaketaren aurkako indarrei egiten die mesede. Mundu globalizatu honetan, ezker errealitate eta sentsibilitate ezberdinen arteko ulertze prozesuei bultzada ematea eta sinergien bilaketa da egin beharretako bat. Baita Euskal Herrian ere.

Horregatik, ARALARrek bere burua beste askorekin batera eta askoren ondoan ulertzen du, indar sozial eta politiko anitzek osatzen duten espazio politiko aurrerakoian. Hainbat dira ezkerren espazio zabal horretan ikusten ditugun eragileak, gizarte mugimenduez aparte: Zutik, AB, Batzarre, Batasuna, ELA, LAB, ESK, EHNE, EILAS, Ezker Batua, Gogoia, EAko zenbati sektore, PSE eta PSNko zenbait sektore...

Bere burua espazio zabal eta anitz horretan kokatzeaz gain, ARALARrek lan egingo du espazio horretan elkar ulertzeak eman daitezen, ezkerren eragin soziala indartzeko eta sentimendu eraldatzaileak sustatzeko, komenigarri ikusten den bakoitzean.

Baina, batez ere, ezker abertzalearen unibertso eragile ezberdinen arteko konbergentzia sozio-politikoaren beharra aldarrikatzen dugu (Batasuna, Zutik, Batzarre, AB, ARALAR), betiere jakinik horretarako baldintza egokiak behar ditugula; eta gaurko egunean ez dirudi posibilitate

horretatik gertu gaudenik. Zentzu honetan, ezkertiarren elkar ulertze prozesuen aldeko ekimenetan parte aktiboa izan gura dugu. Bereziki, ezker abertzale anitz eta zabalaren barruan mugimendu konbergenteak gertatzea gurako genuke, eta horren aldeko baldintzak jorrazeko zereginen konprometituta sentitzen gara.